

Euskararen eraginaren aztarnak Erroibarko gaurko hizketan

(The interferences of the Basque Language in the Spanish
speech of the Valley of Erro)

Ibarra Murillo, Orreaga
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Filologia Dept.
Campus Arrosadia, z/g
31006 Iruñea

BIBLID [1137-4454 (1997), 15; 61-122]

Lan honen helburua da Erroibarko gaurko gaztelera euskarak sortzen dituen interferentziak azterzea. Honetarako, hizkuntz ukipena eta kode aldagetari buruzko alderdi teoriko batzuez gain, interferentzia morfologikoak eta sintaktikoak aztertzen dira. Honen barruan aditzean, izenean, preposizioetan etabarretan sortutako interferentziak arakatzten dira, eta zein den gure ustezko jatorria azaltzen. Euskara heriotz bidean dagoen eremu honetan, fonetikak ere utzi ditu bere aztarnak, alor hau ere jorratu dugu. Azkenik, ibar honetan erabiltzen diren lokuzioak eta lexikoa dira aztergai. Lan honetan bildutako material gehiena euskararen interferentziari zor zaio, euskarak sustrato gisa egiten baitu, haran honetako jendearen hizkeran. Halarik ere, izan badira zenbait esapide edo hitz hemengo gaztelera berezkoak direnak edota jatorri ilunagoa daukatenak, hauek ere, gutxiago izanik, gure lanaren helburu izan dira.

Giltz-Hitzak: Interferentzia. Erroibar. Euskera. Gaztelera. Desagertze. Nafarroa. Dialekto. Sustratu.

El objetivo del presente trabajo es analizar las interferencias vascas en el habla castellana del valle de Erro (Navarra). Para ello, además de dar unos conceptos teóricos acerca del contacto de lenguas y cambio de código lingüístico, se analizan las interferencias morfológicas y sintácticas, incluyendo en ellas las que corresponden al verbo, las preposiciones, el nombre etc. En esta zona donde el euskara se encuentra en proceso de desaparición, la fonética vasca también ha dejado sus huellas. Por último se analizan las locuciones y el léxico utilizado en esta zona. La mayor parte del material recogido en este trabajo proviene de la interferencia producida por el euskara, lengua que actúa de sustrato en el habla de la gente de aquí. A pesar de todo, hay expresiones y vocabulario que son propias de esta zona pero que tienen un origen más oscuro; éstas también han sido objeto de estudio.

Palabras Clave: Interferencia. Valle de Erro. Euskera. Habla hispana. Desaparición. Navarra. Dialecto. Sustrato.

Le but de ce travail est d'analyser les interférences basques dans le langage espagnol de la vallée de Erro (Navarre). Dans ce but, outre quelques concepts théoriques concernant le contact de langues et le changement de code linguistique, on analyse des interférences morphologiques et syntaxiques, en y incluant celles qui correspondent au verbe, les prépositions, le nom, etc. Dans cette zone où le basque est en train de disparaître, la phonétique basque a également laissé ses traces. Pour finir sont analysés les locutions et le lexique utilisés dans cette zone. La plus grande partie du matériel recueilli dans ce travail provient de l'interférence produite par l'euskera, qui est la base dans le parler des gens d'ici. Malgré tout, il y a des expressions et un vocabulaire qui sont propres à cette zone, mais qui ont une origine plus obscure; celles-ci ont également fait l'objet d'études.

Mots Clés: Interférence. Vallée de l'Erro. Basque. Le parler espagnol. Disparition. Navarra. Dialecte. Substrat.

1. ALDERDI TEORIKO BATZUK

1.0. Sarrera

Artikulu honen helburua da Erroibarko euskararen eragina aztertzea gaurko hizkera arruntean. Jakina denez, eremu honetako hizkera -GN hegoaldekoa- desagertzeaz dago; euskaldun bakan batzuk besterik ez baitira gelditzen zenbait herritan, ez denetan. Esan bezala, hemengo hiztun gehienek ez dakite euskaraz mintzatzen, hala eta guztiz ere, hizkuntza honek sustrato gisa jokatzeko du elkarrizketari kolore berezia emanez, alegia, hizkuntzaren maila gutxietan nabarmentzen da eragin hau: lexikoan, syntaxian eta baita fonetikan ere.

Lan honetan bildutako esapide guztiak ibar honetan entzunak dira; egia da, dena dela, hauetako batzuek bizitasun gehiago zutela gu haur ginenean, eta gero eta urriago entzuten direla; jendearen kultur-maila handiagoa delako eta euskara ia-ia ez delako entzuten. Maiztasun hau aldatzen da jende eta etxeen arabera, alegia, zenbait etxetan gehiago entzuten dira aitona-amonak erabat euskaldunak zirelako eta gero, ilobek nahiz euskaraz ez jakin, esapideek kutsu berezi hori gorde dutelako.

Hitzegiteko modu berbera da Arakok duela berrogei ta hamar urte egunkarietako artikuluetan islatutakoa (Cf. Arako 1947). Idazki hauek irria sortzen zuten garai hartan, izan ere Iruñea inguruko herrien hizkera islatzen baitzuten. Gure ustez, hizkera bortxatzen zuten eta gehiegikerietan erortzen ziren farregarria gerta zedin, eta hau gutxi balitz, horrela mintzo zirenak 'aldeano'tzat joak izaten ziren. Hala eta guztiz ere, Arakoren liburua oso interesgarria da hizkuntzarlaritzaren ikuspuntutik, eta bereziki gure lanerako, hortik zenbait adibide hartu dugularik.

Gure lana, hein batean bederen, entzutea izan da; herriko jendearekin egoten ginen momentuetan erne egoten ginen, eta askotan paper puska batean idazten genuen entzundakoa. Hauetako esapide asko erabat arruntak egiten zitzaizkigun guri geuri, eta zenbaitetan kanpoko jendearengana jo dugu edo baita kanpoko gramatiketara ere, guk esandakoa zuzena zenez jakiteko.

Bildutako material guztia beste lan batzuekin kontrastatu dugu, hauen artean Iribarrenen *Vocabulario Navarro*, Zarateren *Influencias del vascuence en la lengua castellana*; Ciérvideren *Léxico vasco en la Navarra romance*, eta Lapesaren *El habla de Oroz-Betelu* eta baita Arakoren *Dialogando* eta Torresen *Interferencias léxicas vasco-románicas en el castellano de San Sebastián* ere. Hauek guztiak oso interesgarriak izan zaizkigu. Dena den, baztertu ditugu erabat orokorrak direnak, alegia euskararen neologismo berriak gaztelanian erabilitakoak oso ezagunak direnak, adib: *ertzaina*, *ikastola*, *ikurriña*, *korrika* etab.

Beste batzuetan, ordea, jatorri euskalduna ez duten beste esaldi batzuk sartu ditugu hiztegiño berberean. Alegia, gaztelaniazko hemengo hitzak edota jatorri iluna daukatenak, hauetako batzuk bulgarismoak edo probintzialismotzat ditugunak, adibidez: *drecho*, *jada*, *jadiar*. Saiatu gara, azkenik, hitz bakoitzaren testuingurua ematen, horrela hobe ulertuko delakoan.

Atzera joango gara oraingoan, euskara-gaztelaniaren arteko harremana noizkoa den ikusteko. Aspaldian, ezaguna denez, euskarak biziki eragin zuen Nafarroako erromantzean, kutsu eta nortasun berezia emanez honi. Gonzalez Ollek horrela baieztatzen du¹:

1. Gauza bera azpimarratzen du Saralegui: "El dialecto navarro, en efecto, presenta desde sus orígenes unas circunstancias totalmente particulares, debidas al hecho de haber nacido en el seno de un área lingüística totalmente diversa: la del vascuence, única de las lenguas peninsulares que sobrevivió a la romanización; y, sobre todo, de haberse desarrollado envuelto, geográficamente y socialmente, en él, hasta el presente" (SARALEGUI 1977: 415).

Una cuestión fundamental, desde el punto de vista románico, la influencia del vasco sobre el habla romance de Navarra, no puede ser abordada porque falta aún el conocimiento detallado de ésta última, de sus posibles rasgos diferenciales -dentro del panorama dialectal español- atribuibles al contacto multiseccular de ambas modalidades lingüísticas (González Ollé 1970: 75-76).

López García (1985) urrutiago doa, euskarak nola eragin duen gaurregungo hizkuntzetan aztertzean; hizkuntz erromantzeetan ezetik, katalanez eta gallegoz, aurreko eragin bat izan bide zen "latin vulgar" delakoan:

Hace ya varios años que vengo investigando la posibilidad de que las lenguas de la península -castellano, catalán, gallego-portugués y vasco- constituyen desde el punto de vista sintáctico y fonológico una alianza lingüística en el sentido praguense del término (1985: 393).

Ilte berean jotzen du Yndurainek. Euskarak gaztelanian egiten duen eragin honetaz konturatu zen Iribarrenen liburuaren sarreran; honezaz gain, ikerketa diastratikoa egiteko beharra azpimarratzen du. Halaxe dio:

A las distintas áreas del léxico y aún a las peculiaridades morfológicas y sintácticas, más marcadas en contacto con el vasco, a todas estas diferencias que denuncian un examen horizontal del lenguaje hablado en nuestra Navarra, habría que sumar aún las que diera un estudio por estratos sociales, según su cultura, ocupación y grado de afincamiento al terruño, lo que técnicamente llama lingüística sincrónica vertical (Iribarren 1984: 4).

Buesarentzat, ordea, alde sinkronikoa, gaurregungo hizkera bizia aztertu behar da:

El navarro medieval es ya bastante conocido gracias a los meritorios trabajos de Francisco Ynduráin....Más desoladora es la perspectiva bibliográfica sobre las hablas vivas, a pesar de que cada vez hay más estudiosos que se preocupan por la realidad lingüística actual de Navarra (Buesa 1977: 10).

Esanak esan, Erroibarren erabiltzen den lexiko kopuru handia euskarazkoa da; hiztun asko, halarik ere, ez dira honetaz konturatzen, beren hizkuntzaren jatorrizko hitzak direla uste dute. Horregatik, gehienetan gure lanean euskararen grafia erabili dugu. Hitza erromantzea edo gaztelania bada, ordea, gaztelania erabili dugu. Aintzat hartu behar da badagoela euskararen eta hemengo erromantzean, gainerako eremuetan galdu den lexiko zenbait. Corominasek oharterazten gaitu honetaz²:

EL DCECH no olvida la trascendencia que la lengua vasca tiene en su aportación al léxico castellano, pero, sobre todo, no olvida la referencia constante a la serie de romanismos que, habiendo caído en desuso en la lengua castellana, viven hoy incrustados en vasco.

Hari honi jarraikiz, interesgarria da Weinreichek dioena; beronen ustez, mailegu bat, beste hizkuntza baten sistemaren barruko partetzat har daiteke, hiztun elebakarrek erabiltzen dutenean (Weinreich 1953: 214). Horrela dio hitzez hitz:

Cuando un hablante de la lengua X usa una forma de origen extranjero, no como préstamo in situ de la lengua Y, sino porque la ha oído usar por otros en enunciados X, enton-

2. COROMINES, J.; 1989, *Premio Nacional de las letras españolas*, Ed. Anthropos, 64 or.

ces ese elemento prestado puede ser considerado desde el punto de vista descriptivo, como un elemento que se ha convertido en parte de la lengua X” (Weinreich 1968: 37-38).

Gure ustez, artikulua hau bide bat izango da honetaz gehiago ezagutu dezagun. Zehaztuko dugu lehenik zer den hizkuntza ukipena eta zer den kode aldaketa, interferentzia garrantzi handia dutenak.

1.1. Hizkuntza ukipenaz hitz bi

Jakina denez, bi hizkuntza sistema harremanetan daudenean, interferentziak³ sortzen dira sistema fonologiko, morfologiko eta sintaktikoan. Dagokigun kasuan, bi hizkuntza -euskara eta gaztelania- harremanetan daude edo, zehatzago izanik, egon dira; horregatik, ezin da pentsatu bi sistemak itxiak mantentzen direnik.

Weinreichek erabili zuen 1953 urtean “Hizkuntza ukipena” kontzeptua lehenengoz; beronen ustez, esan daiteke bi hizkuntza ukipenean daudela “persona berberak, bata nahiz bestea erabiltzen duenean, hizkuntzen arteko ukipena ere gertatzen delarik” (Weinreich 1963: 1).

Hizkuntzen arteko interferentziak sortzen direnean, bi faktore motaren eragina kontsideratuko da: faktore estrukturalak, hizkuntzaren sisteman eragina dutenak, eta ez estrukturalak edo extralinguistikoak. Bestaldekik, faktore hauek interferentziaren eragileak edo eragozleak izan daitezke.

Hizkuntzen ukipenaren eraginez, ondorio ezberdinak sortuko dira: “code swiching” (kode aldaketa) -bi hizkuntza edo bi aldaera linguistikoren alternantzia diskurtsuaren edo elkarrizketaren- edo sistemen batuketak: honen ondorioz, pidginak eta kreolak sortzen dira.

Izenburu hau -ukipenarena- ez da oso egokia bi hizkuntza edo dialektoren elkarren arteko harremana adierazteko. Arrazoiak da, ukipen hau ez dela maila berean edota modu armoniosuan egiten, eta nahiz eta teoriarik eragin hau erreziprokoa izan daitekeen, errealitatean beti hizkuntza batek besteak baino ospe edo indar handiago izango du; bat menperatzailea izanik, eta bestea menperatua.

Are gehiago, ukipena eta interferentzia ezin dira elkarrengandik bereizi. Interferentzia hauek ez dira urruntasun interlinguistikoaren ondorio: gaztelaniaren eta gallegoaren artean, zein gaztelaniaren eta euskararen artean sor baitaitezke, edo Weinreichek dioenez (1968: 648), frantsesaren eta Vietnamieraren artean edo Parisko eta Marsellako frantsesaren artean.

Hizkuntza bat bestearen lekua hartuz doanean “Language shift” suertatzen da. Hau da, hein batean bederen, ukipena dagoen eremu hauetan gertatzen dena; ama-hizkuntzaren egitura hainbeste sartu da hizkuntzaren buruan, ezen egitura baten egokitzea oztapatzen duela. Esandako hau areagotzen da zenbat eta bi hizkuntza hauek ezberdinoak diren. Hauek gain, interferentzia mota guztiak sortuko dira; fonologikoak, azentualak, gramatikalak, lexikoak; alegia, sistemaren atal guztietan eragina dutenak. Maila fonologikoan, interferentzia edo transferentzia modu hauek gerta daitezke⁴:

3. Nahiz guk *interferentzia* aukeratu dugun, gaurko terminologian *transferentzia* hitza gero eta maizago erabiltzen da *interferentzia*-ren ordez. Weinreich (1953:1) definitu baitzuen *interferentzia* sistema baten arauaren desbideraketa gisa. Balorapen peioratibo hori ekiditeko *transferentzia* nahiago izaten dute batzuek.

4. Hauek guztiak Weinreich (2.21) jartzen ditu maila fonikoan, guk beste maila batera ere hedatzen saiatu gara.

a) *Elkarketa edo azpidiferentziazio fonemikoa.*

Sistema sekundarioan bi soinu edo lexema nahasten direnean, eta fonema batean edo adierazle batean batzen direnean, ama-hizkuntzan balio bereizgarririk ez dutelako. Ondoren erakutsiko ditugu azpidiferentziazioaren hainbat adibide: adib. *sartu, hartu* etabarrekin suertatzen direnak.

Erdal hitzen forma maskulino nahiz femeninoak ordain bakar batez eman dira askotan euskaraz, forma hori erromantzeetan neutralizazio-kasuetan nagusitzen den maskulinoaren oinordekoa da. Horrela, partizipioetan *-tu* bukaera nagusitu da (*lucido, -a > luzitu* eta *izen + izenondo* moduko egituretan, oro har *-o* (inoiz *-u*) bukaera eman zaio: *eliza katolikoa*.

b) *Ultra diferentziazioa.*

Ama-hizkuntzan dagoen ezberdintasun bat, bigarren hizkuntzan inposatzen denean⁵.

c) *Berrinterpretazioa eta ordezkaketa.*

Ordezkaketa suertatzen da oposaketa bat muntaduntzat jotzen denean, nahiz bigarren hizkuntzan oposaketa hori ez dagoen. Ordezkaketa suertatzen da bi hizkuntzetan definizio berbera duten fonemak daudenean, baina ebakieran ezberdintzen direnean⁶.

El mejor campo para el estudio de la afinidad gramatical es el de dos comunidades lingüísticas en las que se da un intenso bilingüismo (Echaide 1968: 21).

Hizkuntzalariak, dena den, interferentzia gramatikalei buruz oso eztabaida garratzak mantendu dituzte:

Many linguists of repute have questioned the possibility of grammatical at least morphological, influence altogether. <<The grammatical systems of two language are impenetrable to each other>>, said Meillet (..) and he was echoed by Sapir; "Nowhere do we find but superficial morphological interinfluencings>> (Language, New York, 1927, pg. 217). With equal vigor, the opposite view has been defended by Schuchardt (Hugo Schuchardt-Brevier, ed. Spitzer, Halle, 1928, pg. 195):<<Even closely knit structures like inflectional endings, are not secure against invasion by foreign material>>" (Weinreich 1968: 29).

Zaila da mailegu eta interferentzia linguistikoen norabidea aldeztatik ikustea. Bame eta kanpo faktore askok parte hartzen baitute interferentzia horretan: a) ezaugarriaren nabarmentasuna, b) beste hizkuntzarekiko jokaera subjektiboak c) faktore sozio-kulturalak. Hauek erabakitzen dute interferentzia hauek ospedunak diren edo ezaugarri 'estigmatizatuak' direnentz.

Izan ere, gaur egungo gaztelanian eta euskaraz badira fenomeno asko abian daudenak; alegia, Castilla inguruan hedatzen den *laismoa*, estigmatizatua edo ospetsua da? Nola har-

5. Adibidez, ingelesezko hitzun batek *bote*, *vote*-ren hasierako kontsonanteak bi fonema bezala tratatzen baditu ingelesez, funtzio bereizlea dutelako: *bout* [bout], *vote* [vout], nahiz gaztelaniaz funtzio bereizlerik ez duten.

6. Euskaraz, azpidiferentziazioa eta ordezkaketa gertatzen dira lexiko mailan. Esaterako, erdal genero gramatikalaren aurrean bi izan dira erabilietako jokabide nagusiak: ordezkaketa eta azpidiferentziazioa. Berrinterpretazioaren adibidetzat ditugu zenbaitetan erdal bikotearekin batera mailegatutako dugun jenero-bereizkuntza: *maisu/ maistra, osaba soltero/ izaba soltera; mutiko majo, neska majo, sinpatika*. Kasu hauetan, hitzunik jeneroaren bereizketa ezartzen du gaztelaraz horrela egiten delako, euskaraz beharrik ez badago ere.

tzen dute hiztunek fenomeno hau?, hedatzen ari da, edo gaztelania estandarrek debekatzen du hau? Honez gain, badugu Gaztelau eremuan baldintzaren erabilera berezia, ondoren deskribatuko duguna. Zein hedadura dauka fenomeno honek? Euskararen eragina bide da? Edo ta yeismoaren ahoskera, hedatzen ari da? Zein faktorek hartzen dute parte hedapen honetan? Jakina denez, garrantzi handia du edozein ezaugarrik zein paper betetzen duen taldearen identifikazioan; alegia, zein nolako elkarketa afektiboa sortzen duten.

1.2. Kode aldaketaz

Ukipenenan dauden hizkuntzetan, maiz aski, kode aldaketa gertatzen da. Hona kode aldaketaz Silva-Corvalanek ematen duen definizioa: "Por intercambio de códigos se entiende el uso alternado de dos lenguas por el mismo hablante durante un hecho de habla" (1989: 179).

Lehenik esan, kode aldaketa hau gerta dadin, faktore bat baino gehiagok hartzen dute-la parte honetan, kanpo nahiz barne faktoreek eragina dute. Kanpo faktoreen artean, kode aldaketan bereziki eragina dutenak hauek dira: ingurune fisikoa, parte-hartzaileak, elkarrizketaren gaia, eta identifikazio etnikoa. Kode aldaketa suertatzen denean, honek nolabaiteko elkartasuna sortzen du hiztunen artean

Beheraxeago, kodeen aldaketa noiz gerta daitekeen diosku; noski, baldintza batzuk suertatu behar dira kode aldaketa hau gerta dadin. Silva-Corvalanek dioenez:

Los códigos no se pueden intercambiar en aquellos puntos en que las estructuras de las dos lenguas no son equivalentes; es decir, el intercambio no puede violar las reglas sintácticas de ninguna de las dos lenguas (Silva-Corvalán 1989: 181).

Hona nola gertatzen den berdintasun hau bi egituraren artean. Gaztelaniazko esapide hau hemen erabiltzen da:

Eusk. *Esan nion - behiak - berehala - ekartzeko*
Gazt. *Le dije - para traer - las vacas - enseguida*

Aipaturiko hauetaz gain, badira egitura batzuk besteak baino egokiagoak direnak kode aldaketarako; esaterako, ez da aldaketarik gertatuko izen sintagma batean, erregela estrukturalak ez baitira bat etorriko:

Eusk. *Neska bat*
Gazt. *Una chica ez *chica una*

edo

Eusk. *Guk - egin -dugu*
Gazt. *Nosotros - hemos - hecho ez *nosotros hecho hemos .*

Hona zer dioen Silva-Corvalanek honi buruz:

La condición de la equivalencia estructural establece que los códigos no se pueden intercambiar en aquellos puntos en que las estructuras de las dos lenguas no son equivalentes; es decir, el cambio no puede violar las reglas sintácticas de ninguna de las dos lenguas (Silva-Corvalán 1989: 180).

Ez da erraza asmatzea zein faktorek eragiten duten kode aldaketan; nolahi ere den, baldintza estilistikoek eta bestelakoek parte hartzen dute. Batzuetan indar berezia emateko

eta mezua argitzeko erabiltzen dira. Hau dela eta, maiz askotan, *interjekzioak* ditugu. Hona erabilienak: *agoixtenpat!!*, *zaude*, *zaude!*, *atx!*, *ara*, *ara!!*, *oi*, *oi*, *ama!*, *ai ene!*, Dena den, hizkuntz material hau beti hizkuntza batean agertzen denean, mailegu baten aurrean gaudela esan dezakegu⁷.

Aurrean adierazi dugunez, gazteleraz mintzatzen denean, eta euskarazko sustratoa azpian egonik, askotan erabiltzen diren hitzak euskara hutsean daude. Hauxe da gertatzen dena hurrengo onomatopeiekin eta baita izenlagunekin ere.

Onomatopeiak

Hauek gaztelerazko edozein esalditan usu agertzen zaizkigu, adibidez: *-Allí estaba bilintxi-balanxta*, *-Se pasaba todo el día marmarriando*; *-Hizo todo zirripi-zarrapa*. Hona ohiko batzuk: *Bilintxi-balanxta* 'balanceándose', *dil-dil* 'temblando', *karabi-karaba*⁸ 'expresión utilizada en el juego del escondite'; 'karabi-karaba que miro ya', *kirriski-karraska* 'ruido al rascar', *mar-mar* 'murmurando', *tapa-tapa* 'andando despacio', *tarrata* 'roto, descosido', *zirriki-zarraka* 'a trancas y barrancas'; *bor-bor* 'hirviendo', *ttur-ttur* 'andar despacio'.

Izenlagunak

Beste hainbeste gertatzen da izenlagunekin. Hauek dira eremu honetan gazteleraz mintzatzean gehien erabiltzen diren izenlagunak:

Bizkor 'fuerte', *fardelenekua* 'desgarbado, desordenado', *farrusko-a* 'orgullosa', *gaitxes* 'degraciado', *goxo* 'rico', *guripa*⁹ 'pillo', *illún* 'tristón', *kakamokordo*, *kakapikor*, 'excremento, en sentido cariñoso', *kaskoandi* 'cabezón', *koxxorriko* 'fuerte, niño crecido', *marizikin* 'sucia', motela '1.soso; 2. tipo de pelota que bota poco, muerta', *musido* 'aburrido', *muttu* 'callado', *ponpoxo* 'elegante, presumido', *potoko* 'regordete', *tartarro-a* 'hablador-a', *tokilo-a* 'gordo, y tranquilote', *tripaundi* 'barrigón', *tripontzi* 'comilón', *txintxo* 'formal', *txotxolo* 'tonto', *zakarro-a* 'desgarbado, desordenado', *zaratrako* 'disfraz de hombre con una cabeza grande', *agoandi* 'bocazas', *arroitaundi* 'bocazas', *ttirripitin* 'pequeño y gracioso, se les dice a los niños'. Hauekin guztiekin kutsu pertsonala adierazten da, eta horrela, komunikazioari kutsu afektiboa ematen zaio.

Lexikoari dagokionez, gertatzen den prozedura bat izan ohi da *zabalkunde semantikoa*. Sail honetan sar ditzakegu Erroibarren erabiltzen diren aditz hauen esanahiak: *hacer* (yo ya me he hecho= confesado); *echar* (echar tres teléfonos); *pegar* (pegar tres campanadas); *entrar* (entrar las vacas a la cuadra).

Honainokoa laburbilduz, gehienetan hitz euskaldunen egokitzapenak suertatzen dira, honako bide hauek erabiltzen dira:

- Atzizkia eranstea: *farranduska*, *arramaskada*, *muturkada*, *koxxorriko*, *zocotero*, *architero*, *zurruitero*.

7. Esaterako, mejikarrek ingelesez hitz egiten dutenenean, ¡Hijole! erabiltzen dute.

8. Ziurrenik arabieratik etorritako hitza da, Corominas-en arabera *qaraba* 'consanguinidad, parentesco', 'aproximación'.

9. Oso erabilia gerra ondoren Espainian, DRAE-ren arabera: del gitano *kuripen*, soldado que sirve en la milicia.

- Jeneroa eranstea: azkarro-a, ergel-ergela, gixajo-a.
- Plurala eranstea: apurres, bizerres, ertzemines, eskalapuñes, galtxazabales.
- Aditzak egokitzea: muturkiar, mugar, putxikar, uriñeztar, txitarse.

Forma hibridoak

Aipaturiko hauetaz gain, zenbaitetan lexema edota esaldi berean gaztelania eta euskara erabiltzen ziren. Hau dela eta, askotan formula bat egiten zen, bereziki agurtzeko edo abere-ei deitzeko etab.

- *Axele* (axatu 'azuzar' a los perros, eta *-le* gaztelaniazko izenordea)
- *Toxavenen* (para azuzar a las vacas) (< tox -ena- ven)
- *Hasta mañana si dios quiere / biarrartio pasatu gabon*
- *Ave Maria Purisima edo buenos días/ egunon in duzu lo? Bai, zuek ere bai?*
- *Mañana xai*. Erro herriko ezkilak entzuten zuenean, hauxe esaten zen.
- Matatxerri erd. matar + eusk txerri.

Bi, hiru, lau, bost eta sei urra batera agertzen direnean, horrela deitzen zaie. Bistan denez, gaztelania eta euskara batera datoz lexema berberean¹⁰.

Doseneko
Treseneko
Cuatreneko
Cincoeneko
Seiseneko

2. INTERFERENTZIA MORFOLOGIKOAK ETA SINTAKTIKOAK

Mitxelenak dioenez, bi hizkuntzaren artean eragina suertatzen denean, boteretsuenak eragina du ahulagoan, bereziki lexiko mailan, bertan esaera pila bat sartzen duelarik. Baina, badago bestelako eragina, kontzientzia mailaren azpitik suertatzen dena, kasu honetan euskarak gaztelanian egiten duena. Interferentzia hau ez da lexikoarena bezain deigarria, baina gertatu egiten da. Hona Mitxelenaren hitzak:

En todo lo que queda por debajo de la conciencia es, por el contrario, la lengua menor la que actúa sobre la otra: en el sistema de las categorías gramaticales, por una parte, y en el sistema fonológico por la otra. (Mitxelena 1964: 117)

Nolanahi ere den, kontutan hartu behar da kategoria gramatikalen mailegutza urrituz doala zenbat eta gehiago konplikutzen diren beren funtzio sintaktikoak.

Hizkuntz ukipena suertatzen denean, maila sintaktikoan sortzen diren harremanak oso ezberdinak izan daitezke. Hauek dira garrantzitsuenak:

10. Juankar Lopez Mugartzak esaten didanez, Erronkarin, almadietan lotzen ziren enborrak honela sailkatzen ziren: *docenes, secenes, catorcenes...*

1. Kategoria sintaktiko batzuen funtzio-aldaketa, batzuetan kategoria sintaktikoen murrizketa edo zabalpena gertatzen da.
2. Kategoria sintaktikoen desagertzea.
3. Kategoria edo harreman sintaktikoen erabileraren maiztasunaren aldaketa (Ik. Silva-Corvalán 1989: 173).

Interferentzia moten artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

a) *Hitzen hurrenkeran suertatzen direnak*

Ondoren adieraziko dugunez, euskararen hitz-ordena galdegaiaren arabera antolatzen da, eta horrek eragiten du Erroibarko gaztelaniazko esaldi askok SOV egitura izatea, aditza bukaeran ipiniz eta galdegaia aditzaren aurretik. Adib: *Ese crío todo quiere tocar.*

b) *Funtzioaren aldaketa*

Atal honetako adibide gisa, *porque*-ren erabilera dugu. Gaztelaniaz baldin eta funtzio xedezkoa izan badu, kasu hauetan moduzkoa edo adierazpenezko funtzioa ere badu. Hona, adibidez:

- *Y la novia de éste, porque es enfermera, me dijo*
- *El año pasado porque hicieron el día del Valle, allí fuimos*

Halaber, zenbait aditzetan gertatzen dena, funtzio aldaketaz har daiteke. Esaterako, *entrar* aditza gaztelaniaz iragangaitza da, baina interferentzia dela medio, iragankorra ere izan daiteke; honenbestez, funtzio-aldaketa suertatu da. Hau dela eta, *ya hemos entrado las vacas* bezalako esaldia izango dugu.

c) *Maiztasunaren aldaketa*

Zenbait kasutan interferentzia nabarmentzen da maiztasunaren aldaketaren bidez, alegia, kasu batzuetan kategoria sintaktikoen maiztasuna handia dateke, besteetan, ordez, txikia. Beherago ikusiko dugu "soler" aditzaren erabileraren maiztasunaren areagotzea euskara sustrato gisa daukaten hizkuntzetan.

Hurrengo lerrootan morfologiaren interferentzia nagusiak aztertzeari ekingo diogu atalez atal. Gertakariak hobe zehaztu arren, honako sailak egin ditugu:

- Artikulua eta jeneroa
- Izenordeak
- Preposizioak
- Aditzondoak
- Aditza
- Lokailuak
- Joskera

2.1. Artikuluaz eta jeneroaz

Jakina ere badenez, euskarak ez du artikuluen kategoriarik; honek ekartzen du zenbait akats gaztelaniaz mintzatzerakoan; izan ere, batzuetan hitzari eransten zaizkio jeneroa eta ez

dagokion artikulua ere bai. Horrela badugu: *el cuerda, los vacas* etabar. Dena den, honelako gutxi entzuten dira gaurregun gure eremuan, entzuten direnak euskara mintzo diren euskaldun zaharrek egiten dituzte, gehienak kanpotik etorriak, Baztandik etab.

Hari honi jarraikiz, interesgarria da aztertzea gaztelaniak mailegatutako hitzek zein jenero hartzen duten euskaraz. Hain zuzen ere, zergatik hartzen den jenero maskulinoa edo femeninoa hurrengo hitzetan. Ikerle batzuen arabera, maileguaren integrazio morfofonologikoa gertatzen da jeneroarena baino lehenago. Hona esaterako, ingelesak gaztelaniari mailegatutako kasu bat:

truck -> *la truck* -> *la troca* (el camión)

Oro har, maileguen jeneroaren atxikitzea honako faktoreetan oinarritzen da:

1) Erreferentearen jenero fisiologikoan; 2) mailegua sartzen duen hizkuntzarekiko elkartasun semantikoa, adib. *el lonche* esango da *el almuerzo*-rekin elkartasun semantikoarengatik, eta azkenik 3) maileguaren itxura fonologikoaren identifikazioa, hizkuntz hartzailearen jenero maskulino, femenino edota neutroarekin. Adib. gaztelaniaz *-a-z* bukatutako hitz gehienek femeninoa hartzen dute, eta *-r-z* bukatutakoak, ordea, maskulinoa, horregatik badugu *la hamburguesa/ el hamburguer* (Ik. Silva-Corvalán 1989: 176).

Hurrengo lerrootan emandakoetan, behintzat, argi ikusten da *-a-z* bukatutako guztiek jenero femeninoa hartzen dutela. Horregatik, esan daiteke hitzaren itxura fonologikoa oso faktore garrantzitsua dela, eta, aldiz, gainerako bokaletan eta kontsonanteetan bukatzen dutenak, maskulinoak direla. Aitzitik, *El ama* esatea (amari esateko), kakofonia ekiditeko modu bat izan daiteke.

Baldintzatzen duten faktoreen artean, fisiologikoa dugu. Honek baldintzatzen du argi eta garbi jenero gramatikala. Esaterako: *la ezpuenda*, baina *el ezpondón*¹¹.

Ikus ditzagun euskararen mailegu hauek zein jenero atxiki duten gaztelaniaz. Hauetako batzuk toponimoak dira. Hauen artean oso arruntak direnek artikulua eraman dezakete. Adib; *el licepia*, eusk. *elizepea* < *eliz(a) pea*. Kasu honetan, esaterako, nahiz eta hitza *a-n* bukatzen den; itxura fisikoak, alegia, *el-ez* hasteak eragin du maskulinoa izatea. Lexikoaren atalean hitz hauen esanahia emanen dugu¹².

Maskulinoa	Femeninoa
El bizker (top.)	La Sagarrera (top.)
El bordal (top.)	La Landa (top.)
El ipete (top.)	La patxaka
Los Ubercas (top)	La mantxadera
El bordal (top.)	La kuluxka
El etxondo (top.)	La borda
El sarde	La arrapatona
El patxaran	La bazka

11. Lat. *spōnda*. Buesaren arabera, *ezpuenda* honako herrietan erabiltzen da: *Alcoz, Egozcue, Erro, Olló, Espinal, Roncal y Navascués*.

12. Hitz gehienak euskal maileguak direnez, euskararen grafia erabiliiko dugu. Halarik ere, ahoskera argiago gera dadin azentua ezarriko diegu askori: *el muzikón* adib.

El borzegi	Las burukas
Los altzarres	La txabola
Un amarreko	La mizkinkerie
Un amarretako	La zurra
El antxu	La muga
El antxuzai	La neskazarra
El aprobetxategi	La ondarra
Los apurres	La ordea
Los aranes	La oska
El architero	La patxaka
El aria	La pertika
El aska	La pixarreka
El auzolán	La pizka
El belazi	La porrusalda
El betagarri	La puska
El bixardeko	La raspa
El bizer	La segundilla
El bizkerlarri	La sokamuturra
El burtzin	La sorgina
El danbolin	La ttantta
El eltxemutzu	La sokamuturra
Los eskalapuñes	La chanza
El etxondo	La txerribazka
El ezpondón	La txinca
El ezpor	La txipa
El gardatxo	La txiripa
El gaztamin	La txispurri
El golde	La zanbaluzka
El gorrillón	La zanparra
El zotz	La zarandaja
El zorrón	La zarpa
El manduli	La zarrakamalda
El maiztegi	La zolda
El maixtertogi	La zorroka
El lutozilo	
El txintxurri	
El korrontxo	
El kolko	
El kasko	
El kaskañetazo	
El kartaldi	
El kalforo	
El kagategi	
El ilortxales	
El kutxitril	
El matatxerri	
El mazkaro	
El mingarretxe	
El misino	

El mokarte
El mugarri
El mutilón
El mutilzar
El muturreko
El muturzikin
El muzikón
El muztur
El ongarri
El patxarán
El piltzo
El piperropil
El pizontzi
El pixatoki
El putzurin
El sabayau
El sarde
El sos
El sulso
El taratulo
El txabiske
El txakurtegi
El txandrio
El txaltxorri
El txarro
El zilo
El ziondoko
El ziarraize
El zeape
El zartako
El zarpau
El zare
El zakuto
El txilindrajo
El txilindrón
El txingili
El txirdil
El txirribis
El txori-kafi
El xaxkito
El zapaburu

Izen bereziak

Izen bereziekin, maiz askotan, eta hizkera herrikoian, artikulua erabiltzen da; behe mailako erdaraz ere oso hedatua dago forma hau: *La Juana, La Idoia*.

Honez gain, ahaideen izenekin ez da sg.-ko lehenengo pertsonaren posesiborik erabiltzen; hauen ordeaz, artikulua *el/ la* erabiltzen da. Euskaraz ere ez da posesiborik erabiltzen,

alegia ez da euskara jatorra *nire ahizpa* edo *nire ama* esatea, *gure* baizik edo *ama*, *ahizpa*. Hau dela eta, erabilera hau euskararen eragina da ziurrenik (ik. aurrerago izenordeen atala).

Euskaraz erreferentzia bakarra ez duten izen batzuk izan arren, mugatzailerik gabe ager daitezke zenbait izen, hauek dira: “erregé”, “amabitxi”, “aita”, “aitatxo”, “ama”, “amatxo” “izeba”, “osaba” etabar. Hortaz, mugatzailerik gabe erabiliak direnean, izen berezizat hartu beharko ditugu. Posible da euskararen eraginaren bidez zabaltzea erabilera hau, izan ere, gero, gaztelerazko ordainak ematerakoan, batzuetan artikulua erantsi zitzaion.

Gazteleraren zenbait eremutan ere hau hedatu bide zen: “El artículo sustituye al posesivo ante denominaciones de parentesco cuando la situación hace innecesaria la indicación de persona gramatical “ (Gonzalez Ollé 1964: 3).

Forma hauek anbiguitatea sor dezakete, izan ere ez dakigu noren aita edo ama den, nahiz eta testuinguruak argitzen duen:

- *Estuvimos la hermana y yo en la boda*
- *La madre me ha dicho.*
- *El ama me dió.*
- *El padre siempre nos traía a este campo*

El nuestro ‘Mi hijo, marido’

- *Nuestro hombre ya ha venido*
- *El nuestro lo que es no estudia nada*
- *La nuestra (= nuestra dueña)*
- *Nuestra madre ya decía...*

Euskaraz *gure* izenondoa edo *gure* izenorde plurala erabiltzen da familiako norbaitetaz aritzen garenean. Hau dela eta, kalkoaren bidez, erdaraz, esaterako, *senarra* izendatzeko pluralerako 2. pertsona erabiltzen da ‘nuestro hombre’ diote; edota semeari erreferentzia egiteko, ‘el nuestro’. Gaztelaniaz, ordea, lehenengo pertsonarena erabiltzen da: *mi marido*, *mi hijo*.

Hermano y hermana

- *Hermano y hermana vivían en esa casa*
- *Tío y tía vinieron en el coche*

Euskaraz, bikoteak izendatzeko *dvandva*-elkarteak ditugu egokienak. Horregatik, *anai-arreba*, *osaba-izeba* bikoteen itzulpen zuzena da hau, ez da pluralgile jenerikoa erabiltzen; gaztelaniazko “los hermanos, los hijos, los padres” hitzen ordain jatorrak ditugu hauek. Honenbestez, herri hauetan egiten direnetan ezberdintasuna markatzen da, euskaraz markatzen den bezala.

2.2. Izenordeez

Aquella/ ella

- *A aquella le está costando mucho curar el catarro.*
- *No tengo para olvidar no, lo que aquel me dijo.*
- *Aquel hizo la ermita*
- *A aquellos no les dijeron nada y se fueron solos.*

- *Muchos han ido a trabajar para aquel.*
- *Aquella siempre solía decir que la mejor agua era ésta.*

Esaldi hauetan 'aquel, aquella'-k ez dute ezer seinalatzen, alegia, pertsonak ez daude aurrean eta ez da urruntasuna markatzen ari dena, eta gainera, pertsonari egiten diote erreferentzia kasu guztietan. Badirudi determinatzaileak direla baina izenordainaren funtzioa egiten ari dira, aurrean aipaturiko izen bat ordezkatzeko ari baitira. Gaztelaniaz, beraz, kasu hauetan izenordeak beharko genituzke; gure ustez, kasu guztietan *el/ella, ellos/ellas* jartzea egoikiagoa litzateke.

Gainera, euskalki honetan, ekialdeko hizkeretan bezala, erabilera berezia egiten da hauekin: 3. graduko determinatzailetzat hartzen diren *-hura* eta *haiek*- eta beren deklinatuak izenordain hutsak dira aniztatan. Gaztelaniaz hitz egiterakoan, orduan, aukera bakarra hartzen da. Azpiferentziazioaren kasu bat delakoan gaude; *ella* eta *aquella* ezberdinu beharrez, horietako bat bakarra hartzen da: *aquella*¹³.

Bestaldetik, herri hauetan 'él, ella, ellos, ellas' erabiltzen denean zentzu peioratiboan edota irri egiteko moduan egiten da. Batzuetan esaten dute: *Se fué con 'ella'* (la novia), *Vino 'ella' a buscarlo*, beti ere izenordea ongi markatuz.

Pedro y los dos fuimos al monte

Euskaraz, *Pedro eta biok* esaten da edo *Pedro, Maria y los tres*. Honenbestez, itzulpen argia dugu berau. Gaur egun ez da hainbeste entzuten, baina duela urte batzuk oso arrunta zen.

Y esos, y esas

Izenaren atzetik doanean, konpainia adierazten du, inolako mesprezuzko zentzurik gabe.

- *Mikaela y esos ya vinieron el domingo.*
- *Ahora mismo vienen Pedro y esas.*

Euskararen eraginez sortuak dirateke; *eta horiek, eta haiek* etabarren ordekoa?; nolana ere den, eremu euskaldunetan bizitasun handia dute (ik. Zarate 1976: 59).

2.3. Adjetiboak

Majo majo estaba

Jakina denez, euskaraz, forma intentsiboak lortzeko errepikapena erabiltzen da aditzondoetan: *zabal-zabalik, azken-azkenekoa, soil-soilik* etab, adizlagun bikoiztueta: *bene-benetan, bihotz-bihotzetik*. Baita eratorpenezko adberbio bikoiztueta eta zenbatzaile eta graduatzaileetan ere (ik. Euskaltzaindia: 51).

Hauetaz gain forma hauek erabiltzen dira izenetan eta izenondoetan, hona gaztelaniaz sortzen den islada:

13. Izenorde eta determinatzailearen erabilera korapilotsuaz (ik. Altube: 89 eta hur.). Dena den, erabilera hau, gehiago edo gutxiago, euskararen ukipen-eremuan gertatzen da gehienbat, eta ez ekialdeko euskalkietan bakarrik.

- *En la punta punta del monte almorzamos*
- *Hermosa hermosa estaba la iglesia*
- *Esto está rico rico*
- *Estaba gordo gordo*
- *Ahí ahí andará la cosa*
- *Ahí viene despacio despacio*
- *Igual igual estaba*
- *Así así*

2.4. Preposizioak

Eremu honetan preposizioen erabilera berezia egiten da, hurrengo lerrootan ikusiko dugu. Jakina denez, euskaraz preposizioen ordeztasunak, posposizioak erabiltzen dira; baina, ez dagoenez erabateko korrespondentziarik preposizio eta posposizioen artean, orduan interferentzia nabarmenak sortzen dira.

Bestaldetik, jakina da *sobredeclinación* delako fenomenoaren erabat arrunta dela euskaraz; izan ere, adibidez, *-en* genitibo atzizkiari beste atzizki batzuk erantsen ahal zaizkio. Lafitteren gramatikan esaten dena (cf. Lafitte 1978: 60-63) erabat ongi dator esandakoa frogatzeko eta baita Zaratek dioena ere: “La acumulación de preposiciones y el uso postpositivo de ciertos adverbios son más frecuentes en el romance del País Vasco como era de esperar” (1976: 49).

Lopez urrutiago doa, honen ustez gaztelarazko adberbioak, euskarazko posposizioen antzekoak dira, eta hau, euskara-gaztelararen arteko kideetasuna dela uste du. Kasu honetan euskaraz eragina egin du gaztelarazko egiturari.

Trátese de adverbios o de postposiciones el fenómeno es notable, poco frecuente en la Rumanía, y recuerda la existencia de postposiciones en euskera por tres razones: porque las más importantes y usadas son justamente los correlatos significativos de las formas castellanas, es decir gain, <<encima>>, be, <<debajo>>, aurre <<delante>>, atze, gibel, <<detrás>>, barru, <<dentro>>, etc (Lopez 1985: 402).

Hona hemen eremu honetan entzuten diren batzuk:

- *Por de encima le echas.*
- *Pasó por de encima de las piedras.*
- *Pasa las ovejas por de encima de aquí.*
- *Pasa las ovejas por junto al alambre.*

Hizkera honetan *goiti* ‘encima, arriba’ esan nahi du. *Goitik*, beraz, kasu adlatiboaren erabilera luke, orduan gaztelaniar jartzerakoan bi morfema erantsen dizkiote euskararen morfema erreduntantzia errepikatuz, euskararen kalkoa eginez. Gauza bera gertatzen da *por junto* esapidean, euskararen *ondotik*-en itzulpen zuzena dena.

Hurrengo kasuetan, gure ustez, *nondik*-en kalkoa dena dugu. Alegia, kasu honek erdaraz *por* eta *de*-ren preposizioak ordezkatzeko ditu. Orduan, itzulpena egiterakoan, horietako bat hautatu da¹⁴:

14. Preposizioen erabilera oker honen adibideak ematen ditu Zaratek (1964: 46).

- *De aquí ireís mejor* ‘Por aquí ireís mejor’
- *Salieron de aquí mismo* ‘Salieron por aquí mismo’

Nolanahi ere den, euskara-gaztelera harremana izan den lekuetan akats nabarmenak sortu dira preposizioen erabileran, hona hemen Aezkoako herrietan aurkitutakoak: *A lejos* (desde lejos), *a las mañanas* (por la mañana) (cf. Alvar 1947).

Para lo último, a lo ultimo, a lo primero

Azkenean, edo *azkenerako*-ren balioa daukate:

- *A lo último ya me cansé de estar siempre esperando.*
- *Pa lo último ya no tenía ni ganas de comer.*
- *A lo primero estaba muy contento, pero después ya sabes.*
- *A lo primero no quería ni comer.*

A lo menos ‘Por lo menos’

Euskaraz ‘gutxienez’-en ordekoa da.

- *Yo a lo menos contenta estoy.*

Hurrengo formek “cuando, al tiempo que, apenas” esanahia dute; Ez dakigu euskararen eraginari zor zaizkion, baina hemen entzuten dira eta Colombiaraino hedatu dira (cf. Buesa & Enguita 1992: 207).

- *A lo que llegó.*
- *A lo que iba, le salió un zorro.*

Pues-en erabilera

Euskal Herria osoan, eta baita eremu honetan ere, nahiz eta oso ugaria ez den beste ezaugarri hau testigatzen da: loturazko *pues*-en erabilera. Ezaugarri hau luzatzen da Errioxara, Nafarrora, Aragoira eta baita Hego Amerikako hizkuntzetara ere. Euskarazko *ba*-ren ordekoa dateke hau?

Hau dela eta honakoak ditugu:

- *¿A dónde vas, pues?*
- *¿Qué dice, pues?*

2.5. Aditzondoak

Mientras

Euskaraz, *Bitartean* posposizioak lekua adieraz dezake: *entre*. Adibidez “Etxera bitartean hitz egingo dugu”; horregatik, gaztelaniaren esapidea honen islada da:

- *Se harían los sordos mientras el sermón.*
- *De los ojos mientras la tapa que le dicen.*

Fácil

- *Fácil sabía* (= Aise bazekie)
- *Ese fácil tiene dinero*
- *Ese seguro gana mil duros a la hora...Si, sí, fácil.*

Kasu hauetan modu aditzondoa da (ik. Euskaltzaindia 1993: 460). Herri hauetan oso maiz erabiltzen da eta Alvarrek (1947: 292) dioen honako balore hauek ditu: "Adjetivo extraordinariamente usado en sus múltiples acepciones: *seguro, a gusto*, y con valor adverbial: *ya, fácilmente, en poco tiempo*"

Ven aquí aquí

- *Estate aquí aquí.*
- *Así, así!!*

Kontutan hartu behar da, *ásí, así* esapideak ez daramala azentua posizio oxitonoan, paroxitonoan baizik. Euskararen eragina dateke aipaturiko hau; izan ere erakusle batzuek balio erakusleaz zenbaitetan aurkezpen balioa ere badute, eta euskaraz forma pleonastikoak erabiltzen direnez, gaztelaniazko hauek hauen ordainak dirateke: *hona hemen, horra hor, hara han*.

Igual

a) Quizá, tal vez

- *Igual nos vamos mañana mismo al pueblo.*
- *Igual tú nos puedes vender el coche*

b) Expresión de asombro, equivalente a ¡No me digas!, ¡No será!

- *¿Ya sabes que mañana vienen los parientes? ¡Igual!*

Badirudi zuzena dela honetarako Zaratek ematen duen erantzuna:

Es posible que se trate de un calco semántico del vasc., bardin 'igual, igualmente' y, por extensión, 'probablemente', por extensión de significado similar al del adverbio cast. seguramente 'con seguridad, ciertamente', que, por extensión, ha pasado actualmente a significar 'probablemente' (Zarate 1976: 130).

Bonicamente

Modu aditzondo honek, *polikiren* kalkoa ematen du; izan ere, semantikoki gauza bera azaltzen baitu. Hona esaldi eredu batzuk:

- *¿Qué tal Pedro? Va, ya anda bastante bonicamente.*
- *Hizo todo bonicamente.*

Esaldi hauek, *polikiren* esanahi beretsua dute; gainera, *-ki* atzizkia gaztelerazko *mente*-ren bidez itzuli izan da maiz askotan.

Donde quiera, como quiera, cuando quiera

Forma hauek gaztelaniaren gramatikaren arabera zuzenak dira; kontua da inguru honetan oso erabilera joria dutela; eta hor dago, hain zuzen ere, hizkera batzuen eta besteen arte-

ko aldea. Posible da euskarazkoen kidekoen kalkoa izatea, alegia: *nonahi, zeinahi, nolanahi*-koak:

- *Como quiera te sube mil duros*
- *Ande quiera hay de esas plantas*
- *Cuando quiera se echa buenos tragos.*

Hautetaz gain, esapide ezagun batzuk hauexek dira:

- *Quieras que no a todo el mundo le gusta ganar.*
- *De cuando en vez*

Lehenengoa *nahitaez*-en kidekoa da argi eta garbi, eta bigarrena *noizean behin*-koa.

Halaber, “por ahí anda” esaldia euskarazkoen “nonbait hor” indefinituaren ordaina dirudi; biek *gutxi gora behera* esanahia dutelarik:

- *Les costó un millón de peseta el coche, ¿no?*
Sí, sí por ahí andaba.

2.6. Aditza

Hurrengo lerrootan ikusiko ditugu aditz mailan suertatzen diren interferentzia nagusienak.

Aditz etikoaren erabilera

Definizio hau egokia da datibo etikoan gertatzen denaren berri ematen baitugu:

Todas las cosas del mundo exterior están muertas para el hombre. Al pretender interesar al interlocutor por esas cosas muertas, hay que infundirles vida. Y esto se hace a través de palabras que poseen el hálito vital del hombre; me refiero a los pronombres. Pertenecen a ellos los dativos éticos. Este dativo de participación introduce, por decirlo así, al oyente como espectador en un acontecer que se desarrolla ante él, convirtiéndolo en público y testigo muchas veces de lo inesperado (Beinhauer 1985: 171)

Lafitte ere honetaz ohartu zen: “Le verbe peut s’accorder non seulement avec les sujets et compléments, mais même avec la personne à qui l’on s’adresse. On connaît le datif éthique ou de familiarité qu’on retrouve dans la phrase: “Il vous leur fit un beau sermon”. Ce datif, assez rare en français, est généralisé en certaines régions basques pour le vouvoiement, surtout pour le tutoiement, et il affecte le verbe” (Lafitte 1978: 423. 5).

Eremu honetaz gain, datibo etikoaren erabilpena oso arrunta da gailegoz. Lopezek, Espainiako iparraldean gertatzen denez, euskararen datiboarekin erlazionatzen du. Hona gailegoz sortzen diren zenbait adibide: “*No tenga miedo, mujer, que la cosa no le es tan terrible como se le figura a una a lo primero*”, *¡Claro que te es un decir!*

Lopezek (1985: 403-404) fenomeno hau Espainiako iparraldean gertatzen da bereziki, horrelaxe dio: “Sin excluir dobles influencias, por supuesto, me parece que en este caso el fenómeno es fundamentalmente norteño, pues al dativo ético castellano se suma en gallego un dativo de solidaridad, referido al oyente y que está relacionado con el anterior.”

Esanak esan, elkarrizketa arruntean solaskidea, bigarren pertsona, hartzen dute kontutan eta euskaraz honi dagozkion forma batzuk hartzen ditu. Hiztun hauek, egitura hauei jarrai-

ki, balio orokorreko formak, pertsonalak bezala erabiltzen dituzte balio orokorra dutenean; gehienetan, fenomeno hau *te* izenordearen bidez islatzen da.

Esaterako, euskarak “behiak jaten dik” eta “behiak jaten din” esaldiaren itzulpena hauxe litzateke: *la vaca come* (a tí te lo digo, hombre) eta bigarren kasuan (a tí te lo digo, mujer); bigarren pertsonaren morfema (hiri) *te* izenordearen bidez islatzen da.

Hona eremu honetan hain oparoak diren esaldi batzuk:

- *Eso te cambia.*
- *Si te baja el precio de la ternera...*
- *Esas vacas no te comen nada.*
- *Ese te gana mil duros a la hora.*
- *No es un corredor que te gane etapas.*

Hurrengo lerrootan aditz batzuen erabilera bereziak nabarmenduko ditugu:

Tener aditzaren erabilera

a) ¿Y éso que tienes? ¿Y éso que es?

- *Esa chaqueta pequeña tienes.* ‘Zamarra hori txikia duk/n, duzu’
- *Va, seguro tienes.* ‘Seguro duk/n, duzu’
- *Ese también hora tiene.* ‘Ordua duk/n, duzu’
- *Mejor tienes ir por este camino.* ‘Hobe duk/n duzu’

Ondoan jarri dugu nola esaten diren esaldi horiek euskaraz. Gure ustez, kasu hauetan alokutiboaren aztarnak dira agerian daudenak, alegia, solaskidearen markaren arrastoak. Euskaraz, *duk/n* edo *duzu* adizkiak agertzen direnez, gaztelaniaz *tienes*-en bidez itzultzen dira.

b) Yo ya tengo olvidado aquello

Beste batzuetan, adizki perifrastikoak dira *dut* laguntzaileez osatutakoak euskaraz eta erdaraz, eta *tener* aditzaren bidez itzuliak.

- *Tengo para olvidar.* ‘No lo olvidaré fácilmente’
- *No tengo para olvidar no, lo que aquel me dijo.* ‘Ez dut ahazteko’
- *Yo tengo oído.* ‘Entzuna dut’
- *Yo ya tengo pensado a donde voy a ir.* ‘Pentsatua dut’
- *Ya tengo aprendido.*
- *Ya le tengo dicho que no ande con el tractor.*
- *Ya te acuerdas de aquello? Ba, ya tengo olvidado también.*
- *Yo ya tenía visto aquel setal.*

Eraikuntza hauek guztiak euskarazkoen *Nik ikusia nuen, nik pentsatua dut* eta horrelako-en itzulpen argiak dira. Kasu hauetan partizipioa predikatu osagarri hutsa da, kopula aditz baten bidez lotua beste sintagma batekin (Ik. EGL: 226). Beste batzuetan, partizipioaren ondoan agertzen den adizkia ez da kopula hutsa bakarrik, adib.: *Le tengo dicho* ‘Esana diot’; kasu hauetan *nork* eta *nori* kasuak izango ditugu.

Esandakoaz gain, aditz hauek *ba-* aurrizkiez lotuak doaz, eta gaztelaniaz horren kidea den *ya*. Euskaraz, bada, aditz izenak adierazten duen ekintza burutzeko ahala erakusten du *ba-* aurrizkiak *ukan* eta *eduki* aditzekin. Inpertsonean *izan* eta *egon* erabiltzen dira.

Estar aditzaren erabilera

a) Estoy en que...

Kasu hauetan *Estar* aditzak esanahi hauxe dauka: 'estar convencido, opinar', eta euskarazko ordaina hauxe dugu: *egon* aditza eta *-koan* atzizkia. Euskaraz hauxe litzateke: *anai bat duelakoan nago*.

- *Yo estoy en que no tenía mas que un hermano*
- *Nosotros estamos en que vinieron el año pasado*
- *Joan zen urtean etorri zirelakoan nago*
- *Yo estoy en que es más joven*
- *Estoy que tengo que arreglar* (Arako 1947: 43)
- *Nosotros estamos que está aprendido de por sí* (Arako 1947: 43)
- *Yo estoy que la culpa fué raso de los pasteles* (Arako 1947: 55)

b) Estoy de hambre

Beste kasu batzuetan, euskaraz izenondo modura erabiltzen diren izen batzuek *-beldur, gose, egarri, lotsa, bero, hotz* - esapide hauek sortzen dituzte. Goian aipaturiko perifrasi hauek ere euskararen itzulpen argiak dira (Ik. Echenique 1985: 165). *Berantsetsia nago* esaldiak hauxe esan nahi du: 'nekatua nago zure zain egoteaz', hemen *estoy tardado*. Echaidek horrela kalifikatzen du: '*Estar* con valor existencial' (Echaide 1968: 70).

- *Estoy de hambre* 'Gosez egon'
- *Estoy de frío* 'Hotzez egon'
- *Estar de envidia* 'Inbidiaz egon'
- *Estaba de miedo que no vendría a casa* 'Beldurrez egon'
- *Estabamos de vergüenza para ir a aquella casa* 'Lotsaz egon'
- *Estoy tardado* 'Berantetsia nago'

c) No sé en qué estaba 'No sé qué hacía'

Eremu honetan beste esapide hau ere oso entzuna da; posible da euskarazko honen kidea izatea: '*Ez dakit zertan dagoen*'.

d) Estaba ido

- *El tío ya estaba ido*.
- *Ya está dicho y no voy a repetir más*

Honelakoak barra-barra agertzen dira Arakoren lanean, euskaraz partizipioa: *joana dago* eta *esana dago*-ren ordekoak dira ziurraski.

Soler aditzaren erabilera

- *Solíamos comer berzas y alubias*
- *Solía ir con el carro*
- *Yo ya le suelo decir que no coma tanto*

Herri hauetan *soler* aditz laguntzailearekin osaturiko esapideek beste eremu batzuetan baino maiztasun handiago dute eta hori da, hain zuzen ere, ezberdintasuna, aurrean adierazi bezala. Gure ustez, euskarazkoen *ohi-z* osaturiko kidekoak dira, alegia, *Telebista egune-*

ro ikusi ohi du. Ohitura adierazteko perifrasi multzoa osatzen dugu *ohi* partikulaz baliatzen garenean¹⁵.

Gainera, euskaraz, aditza aspektu burutugabeen jartzen da ohitura markatu nahi denean: *egiten dut* etab. Honenbestez, *-ten* horren ordaina eta *ohi* partikula, gaztelerazko *solero* horren bidez ordezkutzen dira.

Aditzak izenordeekin

Herri hauetako hitzunek *Se* izenordea erabiltzen dute gazteleraz erabiltzen ez den kasuetan: Adib. - *La Julia ya se estaba*. - *Yo ya me pienso*. Hauetako batzuk euskarazko aditz iragangaitzak dira. Hau dela eta, posible da hirugarren pertsonaren adizkia den *da*, batzuetan "se"-ren bidez itzultzea gaztelaniaz eta besteetan ez. Alegia *joaten da* itzul daiteke *se va* (inpersonala bada) edo *va*-ren bidez. Gainera, *se* izenordeak forma inpersonala ordezkutzen du: adib. *jaten da*: "se come". posible da, honenbestez, azpidiferentziazio adibide baten aurrean egotea kasu batzuetan, nahiz eta oso ziur ez gauden.

Nolanahi ere den, gazteleraz hizkera herrikoi eta arduragabekoan maiz suertaturiko fenomeno da dugu hau, adib.: *Ya se murió*, esan beharrean *Ya murió*. Ber gauza gertatzen da idazle hispanoamerikarretan; hauek herriaren hizkuntz moldea islatzen dute, adib: *Enseguida se regresó a la casa grande*. Lopez fenomeno honi buruz mintzo da, euskaraz eragina duela honetan iradokitzen duelarik:

Por relación a un grupo concreto de dichas construcciones, las llamadas intransitivas activas (subirse, etc), podría haber existido algún catalizador ajeno al romance, ya que los ejemplos no parecen anteriores al XIV XV y su verdadera floración no se produce hasta el XVI, muy lejos ya del latín (López García 1985: 404).

Hona bildutako adibideak:

- *Aquel barquillero cuando se venía por las fiestas.*
- *A misa también ya se va* (Julia).
- *Martin así se andaba.*
- *Ya se está sola.*
- *Se ha engordado muchísimo.*
- *Se mejoró.*
- *Yo me pienso.*
- *Aquellos se discuten mucho.*
- *El perro se desapareció.*

Esandakoarekin jarraikiz, izenordeen erabileretan, aurrean esandakoan ez bezala, gaztelaniaz izenorde bat beharrezkoa denean, euskaraz kentzen dute. Antzeko formak testigatzen ditu Echaidek (1968: 70). Aditz aginteran eta bestelakoetan oso arruntak dira honako erabilerak:

15. Hona, Silva-Corvalanek (1988: 174) dakarren adibidea: "Klein, por ejemplo, ha mostrado por medio de un análisis cuantitativo y comparativo del habla de dos grupos de puertorriqueños de Nueva York, que los hablantes bilingües usan formas verbales progresivas mucho más frecuentemente que los monolingües en español. Klein interpreta este hecho como una señal de convergencia sintáctica del español hacia el inglés, la que sólo puede ser detectada a través de un estudio cuantitativo".

- *Quita de ahí* (= quitate de ahí)
- *¡¡Ata, ata!!* (= átame)
- *Entonces puse esta falda* (= me puse)
- *¡¡Calla, calla!!* (= ¡cállate!)
- *¿Aún ries?* (= te ries)
- *Debes guardar* (=lo debes guardar)

Honainokoa laburbilduz, esan daiteke gehienetan ez dituztela oso ongi ezberdintzen: behar duenean ez dute erabiltzen, eta alderantziz. Honezaz gain, eremu honetako gaztelanian infinitibo soilaren erabilera oso handia da; gaztelaniaz, ordea, forma pertsonalak erabiltzen dira. Euskararen eragina dirudi honek, izan ere euskararen konjugazio perifrastikoan askotan kentzen da forma pertsonala (Lafitte 1978: 868).

Hiru pertsona parte hartzen dutenean, gaztelaniaz *se lo he matado*, *se lo he dicho*-ren ordainak beharko liratekeenean, gaztelaniaz *hil diot* eta *erran diot* erabiltzen dira. Honen arrazoia da euskara hizkuntz eranskaria dela, honenbestez objektu zuzena eta zeharkakoaren morfemak aditzetan kolpatzen dira¹⁶.

- *Ya le he matado (un cordero) (se lo)*
- *Ya le he dicho (se lo)*

Hau guztia aztertzen du artikulu zabal batean Fernandez-Ordoñezek. Goian aipaturikoen antzeko adibide franko jartzen ditu, denak euskaldunen ahotan jarriak. Beronen ustez, hauxe da fenomeno hauen arrazoia:

“Es necesario aclarar el porqué y el cómo de la reinterpretación del pronombre le. Me parece evidente que la causa de ese reanálisis fué la mala comprensión del sistema referencial pronominal que regula el romance hablado por vascos” (Fernández-Ordóñez 1994: 120).

Honezaz gain, ikerle honek aztertzen du *leismoa*-ren erabilera azterturiko eremuan isoglosa garrantzitsuenak azpimarratuz¹⁷. Datu hauen arabera, argi dago pertsonaren (femeninoa) osagarri zuzenean, *leismo* kasuak erabat arruntak direla: *la he visto* esan ordez, *le he visto* esaten da. Ezaugarri hauek oso arruntak dira Araban.

Surtir

- *Lo primero que tiene que surtir es que se pongan de acuerdo.*
- *Ya me ha surtido ver cosas así.*
- *Si surte, yo también iré.*
- *A mí también me surtió.*
- *Surtió venir un compañero.*
- *Tú no habías surtido de estar en un paraje tan lejos ¿verdad?* (Arako: 22)

Eremu honetan erabilia eta esaldi hauetan, 'suceder, acontecer'-en esanahia dauka.

Hona Molinerrek dioena:

16. Ik. Zaretek dioena Unamunoren aipua ekarriz: “Si por ahí habláis de un libro, os contestarán: “Ya lo he leído”. Aquí con un “ya he leído” despachamos.”

17. Hona ALEANR XII-ren arabera nondik pasatzen den isoglosa: “Si tomamos como muestra del discurrir de la frontera el 1713 (a la madre la vió en la calle), Eulate, Zudaire, Salinas de Oro, Pamplona, Añorbe, Erro, Egozcue y Espinal marcan el área leísta, mientras que Aguilar, Allo, Estella, Berbinzana, San Martin de Unx, Monreal, Artieda, Garayoa y Ochagavía la zona distinguidora (Fernández-Ordóñez 1994: 118).

“Posiblem. como “surto” del lat. “surgere” a través del fr. o del occ.; o bien del latín “sors, -tis” -v. “suerte, resurtir”-; pero, como es difícil, aceptando esta última hipótesis, hacer con precisión el reparto de palabras entre las familias de “surgir” y “surtir”, se incluye ésta también en la familia de “surgir” (no frec.). (Ik. Moliner: 1238). Corominasen arabera, “antiguamente significó ‘echar la suerte’, ‘predecir la suerte’, y es probable que venga sobre todo del lat. *sortiri*.” Honetatik etorri bide zen euskarazko *zorte* eta baita *suertatu* ere.

Nolanahi ere den, ez omen da hitz zaharra gaztelaniaz, eta Corominasen arabera, inguruko hizkuntzetatik, agian frantsesetik edo italieratik hartutako mailegua dateke. Izan ere, *sortir* hiztegiaren oinarritzko hitza baita. Eredu honetan, aurreko adibideek erakusten dutenez, oso arrunta da.

Levantar

Kasu hauetan, gure ustez gertatu dena zera da: *altxatu* aditzaren esanahia ‘esconder, guardar’¹⁸, esan nahi du, eta bestaldetik ‘levantar’. Honenbestez, gaztelaniaz erabiltzen denean, zentzu horietako batean bakarrik erabiltzen da, zeren ez du esan nahi ‘goian utzi’ edo ‘goratu’, ‘gorde’ baizik .

- *Levanta esos juguetes y ven a cenar*
- *Aquellos papeles ya los tengo levantados*
- *Ayer mismo levanté de aquí los caramelos*

Pegar

Euskaraz ‘ezkilak jo’ esaten da. Hau dela eta, kalko argia eginez, *pegar* erabiltzen dute *llamar* erabili ordez.

- *En tu casa ya pegan* (= ¿llaman a la puerta? Zure etxean jotzen dute (= deitzen dute?)
- *Pegar tres campanadas.*

Echar

- *Echar tres teléfonos...al veterinario (llamar tres veces)*
- *¿Cuánto echas que puede valer esta casa?*
- *Vamos a echar cuentas.*
- *Nos han echado unas invitaciones (nos han dado¹⁹)*
- *Vamos a echar un baile*

Echar aditzak adiera ezberdinak onartzen ditu hemengo gazteleraz. Hauetako batzuk euskarazko *bota*-ren kalkoak dira.

Hacer

Egin aditzak balio semantiko zabala du euskaraz, antza denez, gazteleraz baino handiagoa. Esaldi hauetan, esaterako, *confesar* eta *pagar* adierazteko:

18. Azkueren arabera, AN ultz, eta R uzt ‘esconder’.

19. Ez du esan nahi ‘nos han echado en el buzón’ herri hauetan ez baitago, baizik ‘nos han dado’.

- *Yo ya me he hecho* 'ya me he confesado'
- *Eso ya está hecho* 'ya está pagado'

Quitar (= cobrar)

Gaztelaniaz, behintzat, Molinerrek ez du adiera hau jasotzen baina Alvarrek testigatzen du: *quitar, sacar, costar*. Hemen *costar* edo *cobrar* adierazten du, ziurrenik 'zorrak kitatu'-ren ordekoa.:

- *Me ha quitado veinte duros por esta tontería de nada.*
- *Te quitará mil duros, y ni te enterarás.*

Besteetan 'sacar' adiera ordezkatzeko erabiltzen da:

- *No le quito ni un gusto a esta comida.*

Anchar 'Ensanchar'

- *Ese camino hay que anchar.*

Molinerren arabera, *ancharla, ancharle* nahiko hedatuak daude leku ezberdinetan.

Tomar mal 'Hacerse daño'

- *No vayas por ahí porque has de tomar mal.*
- *Tomó mal y ahora ahí está en la cama*

Aditz asko baditugu euskaraz izena + *egin, eman*, edo *hartu* kateaz baliatuz osatzen direnak: *negar egin, lo egin, min hartu, su hartu, su eman, ez tul egin, lo egin*. Beraien kalko zuzena da gaurregun entzuten diren goian azaldutako adierazpideak. Sail berekoak dira honako hauek ere bai:

- *Ya ha cogido buen cambio*. Euskaraz, 'aldaketa edo alde handia hartu du' (Ha cambiado)
- *La chimenea nos cogió fuego*
- *Dale fuego*

Yo no soy cosa para hacer eso 'Yo no soy capaz'

Euskararen itzulpen argia da hau: '*Ni ez naiz gauza hori egiteko*'

Euskaltzaindiaren arabera, *gai izan* eta *gauza izan* aditzak bezala hartu beharko genituzke.

Hartu

- *Qué, ¿habéis cogido mucho sol?*

Jakina denez, *hartu* aditzak bi esanahi ezberdin ditu erdaraz: *tomar* eta *coger*. Kasu honetan 'coger'-en bidez itzultzen da gaztelania zuzenean *tomar* beharko litzatekeena.

Has de hacer ésto 'Tienes, debes o vas a hacer ésto'

Euskarazko *behar* -en korrelatoa "'ir a" o "tener que o deber" bezalako perifrasiak dira.

Jakina denez, *behar* honek aurrean aipatutako zentzuak ditu; alegia, esanahiari dagokionez, “premia” edo “beharra” adierazten du. Aipaturiko esapide hauetan modu bat bakarrik auke-ratzen da. Azpidiferentziazioaren kasu bat da.

- *He/Hay de ir a por las vacas.* ‘Voy a a ir’
- *A donde/ ande has de ir con tanto peso.* ‘Vas a ir’
- *Has de hacer eso esta mañana.* ‘Debes hacer’

Andar

- *¿Dónde andas?* ‘¿Qué haces?’
- *Anda un poco illun* ‘Está un poco triste’
- *Pedro no andaba por éso* ‘No buscaba éso’
- *Ese anda para los de Viscarret.* ‘Está trabajando para los de Viscarret’
- *Andabámos con bueyes para Julián* ‘Trabajábamos’
- *Bonito anda.* Eusk. ‘ederra dabil’

Euskarazko *ibili* aditzaren kalko semantikoa dugu hau (ik. Torres 1993: 521). Euskaraz *ibili* aditzarekin perifrasi multzoak osatzen dira eta hauek *ari izan* eta *jardun* aditzen kideak dira. Hau dela eta, *ibili* aditzak horrelako zentzu pila izan ditzake: *lan egin, bilatu, egon, egin, izan*²⁰.

Sobrarse la leche

- ‘Irse la leche, salirse del recipiente en el que se está cociendo’.

Egitura hau oso hedatua da Euskal Herrian eta Pirineo guztian barna (ik. Torres 1993: 530). Posible da euskararen eragina izatea, gainezkatu-rena? edo soberatu-rena? BN, Sal ‘pasar de lo suficiente, exceder la medida’ edo Pirineoko erromantzearena.

Hacer de

Jakina denez, ekintzak eragileren bat duela adierazi nahi dugunean, aditsoinari *arazi*, *erazo* edo *eragin* gaineratzen zaio. Forma hauen kideak dira herri hauetan erabiltzen diren ordain hauek, gatzelaniaz, honenbestez, *hacer de* erabiltzen da:

- *He traído las vacas para hacer de mamar* ‘Batazirazi’
- *Le hizo de ir andando hasta el monte* ‘Ibilierazi’
- *Ahí andamos, no poder hacer de comer a estos corderos* ‘Janerazi’
- *Le hizo de hacer todo otra vez* ‘Eginerazi’

2.7. Lokailuak

Cien o.

- *¿Cuántos vivis en tu pueblo?* *Cien o.*

20. Iñaki Gabilondok, Donostiako kazetari famatuak, horrela erantzun zion ondoko galdera honi: “¿Qué tal tienes la voz? *Anda bastante bien*”. Badiurdi zaila dela horrelako hizkera ohiturak kentzea, eta erabat itsasiak mantentzen direla guregan.

Euskaraz *edo*-ren itzulpen argia da, alegia, kantitate zehatza ez denean, horrelaxe azaltzen da euskaraz: *Zenbat pertsona bizi zarete herrian? Ehun edo.*

Edo partikula da aditz multzoko partikula, lokailua (diskurtso mailako loturan erabiltzen diren partikulak). Honako erabilerak eremu honetaz kanpo entzuten dira, baina maiztasun handiz gertatzen dira herri euskaldunetan (ik. Zarate 1976: 48).

Honez gain, *o así* euskararen *edo hola*-ren kalkoa erabiltzen da:

- *Veinte o así vinieron.*
- *Pedro o así si no ha llamado.*

Honen antzeko beste talde bat osatzen dute *pero* elipsian uzten dutenak:

- *Ganar ya gana, pero. (se lo gasta todo enseguida). Aunque gana mucho dinero se lo gasta todo enseguida.* Edo: *Sin embargo ya gana, edo Pero ganar, ya gana,* aurreko baieztapen bati oldartua bezala
- *Ya fuimos enseguida, pero. (ya estaba muy malico).* Aunque fuimos enseguida, ya estaba malico.

2.8. Joskera

Maila sintaktikoari dagokionez, honako eraikuntza eta esaldi hauek azpimarragarriak suertatzen dira:

Porque...

Eremu honetan, *porque* esaldiaren hasieran dagoenean *Bait*-en kopia da. Batzuetan ez da esaldi nagusiaren beharra; eta besteetan esaldi nagusia azkenean joaten da. Dena dela, esaldi hauetan ez dago xedezko kutsurik, moduzkoa baizik. Euskaraz esaldi hauen ordainak *bait* partikularen bidez osatutakoak izango lirateke, adib. hau litzateke euskaraz erabiltzen den honen ordain bat:

- *Antes porque andábamos siempre con el ganado.....*
- *Y la novia de éste, porque es enfermera, me dijo.....*
- *El año pasado porque hicieron el día del Valle, allí fuimos....*
- *Aqui mismo, ¿no te acuerdas? porque solía haber un montón de fiemo.*

Baldintzaren erabilera

Jakina denez, eremu honetan eta Euskal Herri osoan, non gehiago non gutxiago, baldintza erabiltzen da subjuntiboa erabili ordez. Honako kasu guztietan gertatzen da hau, baldintzako esaldietan:

- *Si yo le vería, ya le preguntaría.*
- *Si comerías menos, no engordarías tanto.*

Denborazko eta helburuzko menpeko esaldietan:

- *Dijo que cuando vendría ya traería aquello.*
- *Me dió una carta para que le daría a Juan.*
- *Me dió el dinero para que yo me lo gastaría.*

Kontzesiboetan:

— *Aunque me daría todo el dinero que tienen, no le iba a cuidar.*

Baita desioa adierazten duten esaldietan ere:

— *Ojalá llovería.*

— *Ojalá vendría*

— *Quién podría comer caracoles ahora.*

Baldintzako esaldien kasuan eraikuntza zuzena “Si + subjuntiboaren iraganaldi ez-perfektua + baldintza” beharko lirateke, alegia, *si anduviera mejor, iría al monte*. Eraikuntza haue-tan, ordea, aditz forma berbera erabiltzen da protasian eta apodasian, biak *-ría* bukaera izani-k. Posible da, honenbestez, analogiaren bidez hedatzea eraikuntza hau. Alegia, euskaraz morfema berberak erabiltzen dira protasian eta apodasian *-go* edo *-ko*, eta orduan euskaraz, analogia dela medio, *-ría* erabiliko litzateke, gainera ‘ibiliko banintzake’ moduko itzuliak entzunak dira noizean behin:

— Ibiliko banintz hobeki, mendira joango nintzake

— *Si andaría mejor, iría al monte*

Guztiarekin ere, lerro hauetan ematen dugun hau hipotesi hutsa da; Ez dago garbi ezau-garri hau euskararen eraginaren arrastoa den, izan ere, eremu handiago batean ere gerta-tzen baita, Burgosen, Errioxan eta Euskal Herrian. Ikus dezagun zer dioten honetaz ikertu duten beste batzuek.

Lavanderak²¹ (ik. Silva-Corvalán 1989: 129), esaterako, baldintzaren erabilera aztertzen du, hiru faktore sozial kontuan harturik: sexua, adina eta heziketa. Buenos Airesen egin zuen ikasketa hau 100 hiztun hartuz. Hauek dira maizen erabiltzen diren formak: “imperfecto de indicativo, (variante *-ba*), condicional (variante *-ría* y las dos formas del imperfecto de sub-juntivo (variante *-ra* o *-riase*): Jakina ere badenez, forma hauek oso zabalduak daude; Penintsulako iparraldean erabiltzen dira, Burgosen, esaterako, (Covarrubiasen) eremu hone-tako erabilera beretsuak egiten dira (ik. Silva-Corvalán 1989: 132). Hona adibide batzuk:

— *Si tendría que hacer una cosa como esa, me gustaría*

— *Si consiguiera trabajo, me voy a dar una vida de reyes.*

Ikerle honek, adinarekin eta sexuarekin zerikusia daukaten faktoreak aztertu ezezik, honako beste ondorio hauek ateratzen ditu:

Los contextos más probables favorecerían el uso del condicional y los menos probables el del imperfecto de subjuntivo” (Silva-Corvalán 1989: 129), edo orrialde batzuk geroago, horrelaxe dio: “*El uso del condicional en la prótasis de las oraciones condicionales es motivado por la necesidad de referirse de manera no ambigua a situaciones marcadas [+ probable]*.”

Ikerle honen ustez, bata ala bestea erabiltzeak ondorio semantiko bereziak dakartza.

Lopezek (1985: 400) arazo bera ukitzen du, nahiz eta ez den ausartzen erabateko baieztapenak egitera: “(...) e incluso el uso de *-ría* por *-ra* en otros entornos, el cual parece haber

21. Lavandera, B; *Linguistic structure and sociolinguistic conditioning in the use of verbal endings in “si” clauses* (Buenos Aires Sapniish), tesis inédita de Ph. D, University of Pennsylvania, 1975.

irradiado de la Rioja y comarcas del País Vasco. Como de costumbre todo ello suscita nuestra inquietud sin permitirnos hacer aseveraciones sólidas". Buesak, Llorentekin hitzak ekarri, gaztelauko komunitateetatik ingurukoetara hedatuko zela pensatzen du; nolahi ere den, haien ustez, Bilbo litzateke gune hedatzailea²². Gure ustez baieztapen hauek kontraesanak biltzen dituzte, Nafarroan forma hauek betidanik erabili baitira, Bilbo gune industrialia izan baino lehenagoko denboretatik honat.

Esaldi eliptikoak

Y, *pero*, ó konjuntzioak (gehienetan azendunak), diskurtsoa eten egiteko erabiltzen dira edo zerbait falta dela adierazteko. Euskara mintzo izan den lekuetan aurki daitezke (cf. Zarate 1976: 50); Erroibarren ere euskararen eragin handiena daukatenek erakusten dute joera hau modu bizienean.

Funtzio bat baino gehiago betetzen dute forma hauek.

1. *Aquí estuvieron todos jugando, comer y* (después de comer)
2. *Al lote fuí, comer y.*
3. *Pedro y vinieron a comer a casa.*

Lehenengo eta bigarren esaldiak *janda* edo *jan ondoren*-en itzulpenak dira. Esaldiari buelta emanaz gero: *Jan eta, hemen egon ziren denok jolasean. Después de comer estuvieron todos jugando.*

Hirugarren adibidea elipsi argia da, *Pedro eta beste batzuk* ordezkatzeko baitu. Beinhauer-en ustez, hiztunari ez zaio gustatzen ezaguna dena errepikatzea, eta, honenbestez ulermenerako garrantzizkoa ez dena. Honi lotu behar zaio nolabaiteko erosotasuna, horrek egiten du adierazpen subjektiboa gehiago erabiltzea, esaldi logikoa eta zehatzaren ordeza" (ik. Beinhauer 1985: 373).

Azkuek konjuntzio hauen berezitasunetan erreparatu zuen:

"Hay dos conjunciones -la copulativa y la adversativa- que, cuando se invierte el orden de las frases por ellas relacionadas, mudan de especie, pasando la primera a ser causal y la segunda a concesiva; es decir que ta o eta, que ordinariamente significan "y", en tal caso vale por 'pues'; y 'baina', que de ordinario es 'pero' entonces equivale a "aunque" (Azkue 1923: 479)

- *Nosotros tener la culpa y que estamos* (izan eta).
- *Pulmonía coger y si estuviste* (hartu eta).
- *Pues entender y si he de estar* (ulertu eta).
- *¿Cómo se rompió, sin más ni más? - No, caer y* (erorita).
- *Yo creía esa pieza segar y que teníais cuando vino la pedregada.*
- *Pillar media mozkorra y si estabais.*
- *Pues entender y si he de estar.*
- *Yo me figuro buén tajo dineros gastar y que estarás* (Arako 1947: 27)
- *Seguramente vosotras la culpa tener y que estáis.*

22. "Tal como sospecha Llorente, se trate de un rasgo antiguo de las merindades castellanas más orientales que pasaría al habla romance del País Vasco y de Navarra y, con timidez, al occidente de Zaragoza, revitalizado últimamente por el prestigio popular del habla romance de Vascongadas, sobre todo de Bilbao, debido a su potencia industrial. De todos modos ya existen testimonios aragoneses medievales de este rasgo" (BUESA 1982: 134).

Hauetako adibide batzuk Arako-ren liburutik atera ditugu. Gaurregun gutxiago entzuten dira honakoak, horregatik, adibide gehiago ekartzearren, hara jo dugu. Gure ustez, euskararen -ta partizipio bukaera ordezkatzan du aurreko adibideetan. Hurrengoetan, ordea, kausazko esaldia:

- *Come mucho y. (está muy gordo)*. Asko jaten du eta (baitu).
- *Vive sólo en casa y. (no se cuida nada)*. Bakarrik bizi da eta (baita).

Esaldien hurrenkera

a) Galdegaia aditzaren aurretik

Euskarazko esaldiaren ordena nahiko askea bada ere, SOV egitura egiteko joera nabarmen dena esan daiteke. Baiezko esaldietan, elementurik nabarmendu nahi ez denean, hau da hurrenkera: sujeta, osagarri zirkunstantziala, zehar osagarria, osagarri zuzena, atributoa, aditz nagusia eta aditz laguntzailea (Laffite 1962: cap. VI). Gazteleraz, ordea, SVO egitura da ohikoena erreferente berria sartzen denean. Hau dela eta, euskaldunak mintzo diren erromantzearen ezaugarri bat da osagai guztiak aditzaren aurretik ezartzearena. Gaztelaniaz ere errekurtsu hau erabiltzen da (cf. RAE 1989: 395) baina euskaraz bizitasun handiz, esaldiaren egituraren oinarria delarik.

Hau guztia euskararen joskeraren eragina da; jakina denez, galdegaia, alegia, euskaraz nabarmen dena, informazio berria, aditzaren aurretik joaten da. Eta honen inguruan antolatzen da esaldia. Hurrengo esaldietan euskarazko esaldiaren hurrenkera islatzen da, aditzaren aurrekoa galdegaia da:

- *Bien estoy*
- *Ese crío todo ha de contar*
- *De Linzoáin traído*
- *Esa noche una manta no poder conseguir*
- *Aquel Andrés hermano sería*
- *Con Daniel se juntó y apuntarse de falangista*
- *En alquiler cogieron*
- *¿Radio era eso?*
- *Pamplonesa que te ibas a hacer para siempre*
- *Con ése teléfono chiquito llevar se suelen*
- *¿De ande lo de la Puerta el Sol que le dicen?*
- *Yo creía en esta última también que jugaríais* (Arako 1947: 21)
- *A cada duro que le teníamos que ganar*
- *Peor que el veneno dicen que son*
- *Así dicen....*
- *Por mejor hice.*
- *¿Vuestro gato era?*

Egitura honekin jarraituz, esaldi menpekoa lehenengo jartzen da eta ondoren nagusia; hona hemen adibide batzuk:

- *¿Ya habeis comido? ¡¡Claro, todo hecho como estaba!!*

Dena egina baitzegoen/ zegoenez

- *Tanta gente como andaba, entrar y salir.*
- *Que salía más jugoso el pan solían decir.*

- *A ver, de esa forma trabajando, cómo se iba a hacer dinero.*
- *Ya había otro también, debajo tierra que se sacaba...xiaurris.*

b) Aditza galdegai denean

Kasu honetan bi modu ezberdin daitezke euskaraz, eta honako hau da bere eraikuntza: 1) aditza sintetikoa bada, infinitiboa jartzen da aditz jokatua baino lehenago. 2) Aditza perifrastikoa bada infinitiboa jartzen da *egin* aurretik.

- *Ser de aquí son, pero no suelen venir nada*
- *Saber, ya sabe, pero no le luce nada*
- *Estar, ya suele estar, pero no le hace ni caso*

Hurrengo kasu hauetan aditza bera da galdegai, eta aditza perifrastikoa da; horiek horrela, "hacer + infinitibo" egituraren bidez ordezkutzen da. Hauek guztiak gehiago edo gutxiago gaztelania-euskara harremana izan den leku guztietan entzuten dira (ik. Altube 1929: 37)²³.

- *Fuimos al monte y la cría caer se hizo.*

Mendira joan ginen eta umea erori egin zen.

- *Empatar ya hizo, pero luego no le podía ganar.*

Berdindu egin zuen, baina ezin zuen irabazi.

- *Ese romper ya hizo, ahora a ver quien arregla.*

Horrek hautsi egin zuen, orain ea nork konpontzen duen.

- *Yo trabajar ya he hecho.*
- *Nosotros también achicar hicimos.*
- *Trabajar si hace, pero dinero poco.*
- *Vender te pueden hacer cuando quiera.*

Perpau koordinatuetan edo aditzak elkartzten direnean, maiz infinitiboa bakarrik aurkitzen dugu, eta euskaraz aditz laguntzailea bigarrean jartzen da; gaztelaniaz, ordea, forma pertsonalak dira usuenak. Euskararen eragina dirudi honek; izan ere, euskararen konjugazio perifrastikoa askotan kentzen da forma pertsonala (Lafitte 1978: 868). Adib.: *nola bizi, hala hil; nork erran...*

- *Echar en la cama y en seguida se durmió.*
- *Trabar y al suelo* (Poniéndose los pantalones)
- *Comer aquello y en seguida me fui.*
- *Ir allí y a la noche una manta no poder conseguir.*
- *Hacer unas mantxas y traer la hierba.*

23. Arakok erabilitakoak, esaterako, gehiegizkoak dira, izan ere, ez dira horrelako maiztasunez erabiltzen. Horregatik, Gonzalez Ollek dioena erabat zuzena da: "Arako convierte ciertos procedimientos sintácticos (por ejemplo, el uso de hacer + infinitivo para señalar el sentido dinámico) debidos a la construcción vascuence en determinados casos, en esquemas de uso constante que en muchas ocasiones no responden, por tanto, a un supuesto modelo con egin 'hacer', pero su intención paródica, con la inevitable exageración de los aspectos típicos, permite conocer los rasgos más característicos del habla de la Cuenca". (Gonzalez Ollé 1970: 68)

- *Nosotros conocer muchos no, mas que los de ahora* (nosotros solamente conocemos a los de ahora)²⁴.

Egitura berberak errepikatzen dira ezin aditzarekin. Zenbaitetan, dena den, gaztelerazko gerundioa-ren bidez itzultzen da.

- *No poder sacar las vacas*
- *No poder hacer carrera con los hijos*
- *No pudiendo hacerle de entender*

c) Galdegaia *bai* edo ez denean

Bestaldetik, *bai*-ez erako galde perpausetan *ba-* erabiltzen da adizki trinkoari aurretik atxikia. Beste galdegairik ez dagoenean eta adizki trinkoa perpausaren lehen buruan gertatzen denean *ba-* jartzen dugu euskaraz. Eraikuntza honen ordainak dira herri hauetan barra-barra entzuten diren eraikuntza hauek.

- *Qué, ¿ya vienes?* Bazatuz
- *¿Y tú ya sabes?* Badakizu
- *¿Qué, ya habeis venido?*²⁵
- *¿Ya sabes?, Periko ha tenido un accidente*
- *Razones para enfadar ya tenían*
- *Ese ya te hará, pero cobrar también ya suele hacer.*

Hona zer dioen Altubek honi buruz:

Las oraciones euskéricas de afirmación inquirida no corresponden siempre a las españolas caracterizadas por el adverbio ya (en rigor es de tiempo; afirmativo sólo por extensión). En euskera, en todas las oraciones cuyo elemento inquirido es la cualidad afirmativa del verbo, la flexión verbal va provista, si es sintética, del prefijo ba-; si es perifrástica, del acento que lo sustituye. En español, el adverbio ya es aplicable a ambas clases de esas flexiones (sintética, ya viene; perifrástica, ya hubiera venido); pero por otra parte su radio de acción es, en la práctica, mucho más reducido, a no ser en el castellano euskarizado de muchos vascos, quienes plagiando la frase euskérica aplican el adverbio ya (como equivalente del euskérico ba) a todas las oraciones castellanas de afirmación inquirida (Altube 1930: 58).

Nunca no

- *Nunca no se llenaba la hucha*
- *Nadie no ha venido*
- *Ninguno no quería*
- *Ni hacer esto tampoco no sabes tú, ¿o qué?*
- *Nada no come esa cría.*

Gure ustez, egitura hauek euskararen eraginaren arrastoak dira. Jakina denez, euskaraz, *inoiz*, *inor*, *ezer* adberbioak ez-ekin joaten dira ezezko esanahia adierazteko.

24. Hona aditz laguntzaileak jartzeko zailtasunak erakusten duen esaldi bat. *Creyendo no venido*. Artzaia kanpotik etorri zenean, etxeko nagusiak hauxe esan zion. *Ustez ez etorria*-ren ordaina edo.

25. Hauxe bera esaten zioten Altsatsun nere lagun bati, agur gisa, nolabait ustekabea edo poza adierazteko, erantzuna izaten zen: "No, todavía estamos en Pamplona". Euskarazko *ze, hain goiz edo honezkeror etorri zarete?*-ren ordekua.

Dena den, aintzat hartu behar da esaldi hauek arruntak zirela gaztelera zaharrean ere bai. Fuero General de Navarra delakoan, esaterako, oso arruntak dira: "Ni ningun rencurant non deve ser rezebido por mano de seynor" (ik. Reta Janariz 1976: 407).

Por eso

- *Reñimos el año pasado. Por eso* (a pesar de eso) *ya le dejamos entrar en casa jeh!* (A pesar de eso)
- *Perdió todo el dinero. Va, por eso* (a pesar de eso) *ya estaba tranquilo* (A pesar de eso)

Kasu honetan 'por eso' adierak 'horregatik' lokailuaren kalkoa da eta aurkaritza azaltzen du. Gure ustez, erabilera berezi horren kokka honetan datza: *honengatik*-ek bi balio ditu: 1) Por esto (motibatiboa), eta 2) a pesar de (kontzesiboa). Bigarren hau da, gure ustez, esaldi horiek duten zentzua, kontzesiboa alegia²⁶.

Aún y todo

- *Nos debía dinero, y aún y todo aquí se solía venir.*
- *Le haces todos los gustos y aún y todo llora.*

Honen esanahia da 'a pesar de todo'; euskaraz 'hala eta guztiz ere' esapidearen kalkoa, gure ustez.

Una vez de

Forma hau erabiltzen da partizipioaren ordean esaldi absolutiboetan (Ik. Echaide 1968: 69): "El infinitivo, precedido de *una vez de*, sustituye frecuentemente al participio en las frases absolutas". Egitura hauek euskarazko beste hauen parekoak izan daitezke:

- *Una vez de comer se fueron al campo*
- *Una vez de ver fácil se sabe quién es.*
- Behin janez gero, mendira joan ziren.
- Behin ikusiz gero, aise jakiten da nor den.

Gaztelaniaz antzeko esapidea erabiltzen da, baina preposizioa ez da bera: *Una vez que, después que*, dira erabiltzen direnak: "Una vez que estamos reunidos, discutiremos lo que conviene hacer (cf. Moliner: 1518).

Más quería

- *Más quería mirar a los que jugaban*
- *Más quería si, quedarse en casa sin hacer nada*

Euskaraz, 'preferir' *Nahi + ago* esaten da. Adjetiboen gradua markatzeko ere *-ago* atzizkia erabiltzen da, adib. *más negro: beltzago*. Gure ustez, kasu honetan, egitura hau errepikatu da.

26. Ikus Euskaltzaindia (1993: 129)-n agertzen diren adibideak: " *Ni lotsarik gabe ZU ofenditzen: ta Zu orregatik ere, on geiago niri egiten!!*

Era de venir

— *Eran de ir ayer mañana* ‘Etortzekoa zen’

Etxenikek horrela dio esapide honi buruz: “He podido recoger algunos casos de perifrasis en los que cabe sospechar que hay algún tipo de elipsis o al menos, información con ciertas lagunas (...); son habituales “es de venir”, “era de venir ayer” (Echenique 1985: 165).

Gure ustez, perifrasi hau euskarazkoaren kalkoa da. Kasu honetan aditz nagusia leku genitiboan doa eta *izan/egon* aditz laguntzaileak eranstean zaizkio. Izan aditzarekin -*tzeko* + Ø nahiz -*tzeko* + *a*, *ak* izan daitezke.

Aginterazko esaldiak

— *Les han dicho para llevar a Pamplona al hospital*

— *Les dijo para estar quieto en casa.*

— *Han dicho para pagar en Burguete*

Kasu hauetan aditz jokatu erabili beharrean, alegia, “que lleven, que estén quietos, que paguen” jarri beharrean, *para* erabiltzen da baina esaldiak ez du xedezko baliorik. Honen jatorria hauxe da, euskaraz forma hauek islatzeko modu bat aditz jokatu erabiltzea da: *eraman dezagun*, *egon gaitezen* etab, bestea, ohikoena dena, aditz jokatugabea erabiltzea da: *eramateko*, *gelditzeko*, *pagatzeko* etab. Azkeneko forma honen itzulpena, *para* xedezko esaldia da. Honenbestez, azpidiferentziazioaren kasu baten aurrean gaude, bi itzulpenen aurrean, bat hautatzen baita.

Para ti he dejado ‘He supuesto que eras tú’

Esaldi honen esanahia hauxe da: ‘He supuesto que eras tú’. Al ver a alguien, y no reconocerlo enseguida.

— *Para el maestro he dejado.* ‘Maisuarendako utzi edo jo dut’

— *Vi la oveja y la dejó pa muerta* ‘Hildako utzi zenuen’

Euskalki honetan kasu prolatiboaren morfema *-dako* da. Honenbestez, destinatiboaren morfema berbera denez, alegia, *-dako*; biak *para* preposizioarekin itzultzen dira, eta *por* ez da erabiltzen. Euskaraz bi kasu hauen funtzioak nahiko elkartuta daude, destinatiboak xedea markatzen du eta prolatiboari dagokionez, badira arrazoi handiak ez dela kasu arrunta pentsatzeko, bereziki, atzizki hau mugatzailerik gabeko sintagmei bakarrik eranstean baita. Hau dela eta, batzuentzat posposizioen artean sailkatu beharko litzateke.

Otra vez ‘En cambio’

Esaldi adbersatiboetan erabiltzen diren partikulak ditugu hauek: *baino*, *aldiz*, *berriz*, *ostera*. *Berriz*-ek bi zentzu ditu, alde batetik ‘otra vez’ eta beste aldetik ‘en cambio’. Honenbestez, hauetako itzulpen bat erabiltzen da ‘en cambio’ adierazi behar denean.

— *Les ha salido el hijo mayor muy bueno, pero el pequeño otra vez es un bicho.*

— *Con el padre en vasco, pero con la madre, otra vez, el castellano.*

¡¡Vete que!!!

Euskaraz honelako eraikuntzak entzuten dira: *zazi ze eperrak eta konejuak eta oi, oi,!!!*,

honenbestez, herri hauetan entzundako hurrengo esaldi hauek egitura honen itzulpenak dirateke. Gaztelaniaz, honako esapiderik ez dago, Molinerrek, behinik behin, ez ditu errejistratzen.

- *¡Vete que bien estuvimos!*
- *¡Vete qué grande es ese coche!*
- *¡Vete qué vacas más bonitas tenían!*

Maila semantikoan interferentzia batzuk sortzen dira. Batzuetan zabalkunde semantikoa-ren bidez, eta besteetan azpidiferentziazioaren bidez. Hona garrantzitsu batzuk:

Entrar = meter

Euskaraz, jakina denez, aditz honek bi laguntzaile har ditzake: iragangaitza hartzen badu, esaldi iragangaitza izango dugu, alegia, gaztelaniaz ‘*entrar*’, eta iragankorra hartuz gero ‘*meter*’. Hemengo hitzunek azpidiferentziazioa egiten dute, horietako forma bat bakarrik erabiliz, eta *meter* erabili beharrean *entrar* erabiliz esaldi iragankorra izanik eta subjeto zuzena izanik.

- *¿Has entrado las vacas a la cuadra?*
- *Voy a entrar las leñas.*
- *Hoy hemos entrado dos carros de hierba.*

Zenbaitetan, esaldia iragangaitza denean izenorde erreflexiboa eransten diote. (ik. aditzen saila).

- *Hoy me he entrado a casa Monyolos*

Ahí

- *Ahí, ¿ves?* (mira, ¿ves?)
- *¡Ahí tienes, como se saca la vida la gente!*

Esaldi hauek esaterakoan ez da ezer seinalatzen, gaztelaniaz “¡mira!” esango genuke. Gure ustez, *horra*-ren itzulpen zuzena da. Euskaraz: *horra, nola ateratzen duen bizitza jendeak!* izango litzateke.

Sin pasar, sin comer

Infinitiboz bukatutako esaldi hauek oso erabiliak dira eremu handietan. Gure ustez euskararen kutsua daukate.

- *¿Habeis pasado por ahí? No, sin pasar.*
- *¿Has comido alguna vez birika? No, sin comer.*

3. INTERFERENTZIA FONETIKOAK

Euskararen sistema fonetikoak eragin nabarmena egin du gaurko gaztelanian, eragin hau aspaldikoa da. Jakina denez, gaztelararen ezaugarriko fonetiko batzuk: *b* eta *v*-ren arteko nahasketa, gaztelararen *s* apikaria, hasierako *f*-ren galera etabar, euskararen eraginari zor zaizkio. Menendez Pidalek dioenez, euskarari erreferentzia eginez: “Me parecen evidentes ciertas influencias fonéticas importantísimas” (Menendez Pidal 1923: 28). Hasiko gara bada:

3.1. Kontsonante afrikariak

Kontsonante txistukarietan aurkitzen ditugu euskararen eragin nabarmenatariko batzuk.

Esaterako, eremu honetan entzuten diren ebakera hauek: *en[ts]alada*, *por[ts]iacaso*, *dul[ts]e*, *pacien[ts]ia* euskarazko erregela fonetiko bat islatzen dute. Alegia, euskaraz, *r*-, *n*- eta *l*-ren ondoan kontsonante txistukariak afrikatu bihurtzen dira. Horregatik, ebakera hauetan esandako hauxe islatzen da.

Honezaz gain, zenbait lexematan, silaba hasieran kontsonante afrikaria aurkitzen dugu, gaztelera arruntean txistukaria dena; izan ere, hizkera honetan zenbait lexema afrikariz has- ten dira. Hona, bada:

cinco	-> [ts]inco
chimenea	-> [ts]imenea
	[ts]irurike
	ka[ts]arro

Hitz erdian ere, zenbaitetan eriden ditugu honelakoak, afrikatu bizkar-hobietako [c] eba- kiz, sabaiaurrekoaren ordez:

pa[ts]aran
pecha-> pe[ts]a
po[ts]olica

Bada beste ezaugarri bat nabarmena dena, gaztelera < c + e, i > edo *za*, *zo*, *zu*, fonemaren ahoskera da; ahoskera hau oso deigarria da eta nabarmena izan daiteke familia bateko kideen artean, eta beste batzuen artean, ordea, ez hainbeste. Fonema hau, euska- razko bizkar-hobietako ahoskabe bezala ahoskatzen da, hortzartekari frikatiboaren ordez.

Los [s]apatos
El [s]erdo
A ve[s]es
[s]ien

Kontsonante palatale helduko diegu oraingoan; jakina denez, euskarak badu palataliza- zio adierazkorra deitutako fenomeno bat. Palatalizazio edo bustidura mota hau erabiltzen da umeei hitz egiten zaienean, eta adierazkortasuna bilatzen denean; honen bidez, fonema txis- tukariak *s* eta *z*, *x* bihurtzen dira, era berean beren kide afrikatuek *tx* egiten dute. Bestaldetik, *d* eta *t* horzariak <dd> eta <tt> palatal bihurtzen dira hurrenez hurren.

Eragin hau dela eta, gaztelaniazko fonema batzuek umeen hizkeran bilakabide berbera egiten dute:

toto (caramelo)	-> ttoto
¿¿Qué mozo!!	-> ¿¿qué moxo, moxico!!
¿Ya sabes?	-> ¿ya xabes?
zapatós	-> xapatox
tiénes	-> ttenex

Mitxelenak, "romance navarro"-aren fenomeno batzuetan, arrazoi berberak daudela ira- dokitzen du, alegia, euskararen sustratoa.

Lo que sorprende un poco al no especialista es que el proceso de convergencia, mantenido siempre en el mismo sentido, empieza ya muy pronto. En ciertos casos, la

alternancia feito/ fecho, dito/ dicho, por ejemplo, podría pensarse en una evolución interna, facilitada por lo menos por el mismo sustrato o adstrato vasco. En efecto ante grafías como Guti(a)/ Guchi(a) de un mismo nombre claramente vasco, cabe sospechar que t/ch no sea más que una manera de representar algo así como una t palatalizada. Que ésta podría ser de origen expresivo, y no nacida sólo de rom. j + t tras vocal (Mitzelena 1971: 213).

3.2. Yeismoa

Hona nola definitzen duen hiztegi akademikoak yeismoa: “pronunciación de la *elle* como *ye*, diciendo por ejemplo, *gayina* por *gallina*; *pooyo* por *pollo*”.

Herri hauetan yeismoz ezagututako bilakabidea -alegia [j] ahoskatzea albokari sabaikariaren orde ez da hedatu, gainerako lekuetan ez bezala, eta [ʎ] garbi ahoskatzen da. Gu ume ginenean, oso nabarmena egiten zitzaigun *pooyo*, *gayeta* bezalako ebakerak entzutea. Ezaugarri honetan, besteak beste, berehala sumatzen genuen hirikoa zela horrela ebakitzen zuen pertsona.

Alvarrek ez du nondik datozen esaten, baina posible da euskararen eragina izatea bi fonema hauen ezberdintasuna mantentzea; izan ere, Castellako eta Euskal Herriko kolonizadoreak joan ziren hara, eta hauen eragina nabarmentzen da [ʎ] palatalizatuaren ahoskeran Paraguyan. Echeniquek ere horrela iradokitzen du²⁷.

Gaur egun, hiriko jendearen eragina dela medio, badirudi oreka hau apurtzen ari dela. Honen frogatzat esango dugu, *LLallania* < *Erallarena* izena zuen etxe bati *Yayanea* jarri diotela atean, eta, gaurregun askok horrela ebakitzen dutela.

3.3. /r/ fonema

Jakina denez, /r/ fonema azken posizioan aurkitzen denean, euskarazko fonetikaren araber, anitzaren alde neutralizatzen da. Esandako honen froga izan daiteke hemengo emakume batek ahoskatzen duen esaldia:

Ponme dos yogurres

Bestaldetik, “r” anitza ahoskatzeak balio adierazkorra izan dezake, euskarak duen bezala; izan ere euskaraz izenondoari pisu berezia eman nahi diogunean kontsonantea nabarmentzen dugu. Horregatik, honako ebakerak ditugu: ¡¡que *rrrabias* hice!!, *grrrande era*.

Azkenik, *r*- fonema hasierako posizioan dagoenean, bokal protetiko bat jartzen du; gaztelaniaz mintzatzean ere, joera hau errepikatzen da batzuetan adib. ¡¡*Erredios!*!

27. (ik. Echenique 1987: 100) “Por último, señalemos que en el País Vasco, Navarra, Castilla la Vieja, Rioja y Aragón tienen gran arraigo los vulgarismos del tipo *cáido*, *páis*, *máestro*, *pior*, *tíatro*, *cuete*, extendido, a su vez, por toda la América continental y también, aunque menos en las Antillas. Lapesak ere (1988: 479) gauza bera berresten du. Honez gain, eta eremu honetaz kanpoko erabilera bat euskararen eraginaren ondorioa omen da: “Las articulaciones asibiladas de *r* y *rr* [r] y [R], así como del grupo */tr/*, que se registran en La Rioja peninsular, Navarra y País Vasco, las encontramos también en diversas zonas americanas, como Chile, Argentina (en el interior y Norte), Bolivia (al Oeste) y en el territorio guaraní, con centro en Paraguay (Echenique 1978: 99)

3.4. Herskariez osatutako taldeak

Euskarazko fonetikan erregela honek funtzionatzen du: bi herskariz osatutako taldeetan, bat posizio explosiboan dagoena, eta bestea inplosiboan, ez da ahoskatzen herskari inplosibo. Joera hau dela eta, gaztelaniaz mintzatzean, arrasto nabarmenak aurkitzen dira, kontsonante pare hori desagitzen da eta *-kt-* > *-t-* eta *-pt-* > *-t-* taldeak bakanduko dira:

tócsico -> [tó'síko]
 raptar -> [rátar]
 trator -> [trátor]
 noturna -> [notur'na]

Aipaturiko hauetaz gain, honako kontsonante bikoteak murrizten dira: *-bj-* > *-j-*: *ojeto*; *-gn-* > *-n-*: *inorante*, *repunancia*; *-pc-* > *-c-*: *lección*, *corrución*, *concepción*; *-bs-* > *-s-*: *asurdo*, *asorber*, *oservar*; *-ns + consonante-* > *-s-*: *costante*, *istante*, *transportar*; *-cc-* > *-c-*: *lección*, *acidente*, *destrucción*.

Fenomeno hau, aurreko beste asko bezala, oso eremu zabalean gertatzen da, ez da hizkera honen berezitasuna bakarrik; hizkera herrikoi eta arruntean maiz suertatzen den fenomenoa baizik.

Herskarien sailarekin jarraituz, hasierako posizioan badakigu euskaraz kontsonante herskariaren oposaketak ez duela balio handirik. Batez ere latinetikako maileguetan etab. *pago/bago* eta *bake/pake* nahiz *gorroto/korroto* txandakatzen dira. Honengatik, posible da gaztelaniaz ere antzeko zerbait gertatzea, eta euskaraz sorturiko txandaketa hau honeraino hedatzea (ik. Iribarren 1952: 277).

— *La griba* < *criba* . *k-* > *g-*
 — *La gorbata* < *corbata* . *k-* > *g-*

Bestaldetik, *-mb-* taldeak *-m-*ra murrizteko joera erakusten du: *tambien* -> *tamen*. Eta azkenik, bokal arteko *-b-* edo *-g-*ren galeraren ondorioz, *aujero*, *seuro*, edo *aundante* bezalako ebakerak maiz aurkituko ditugu.

3.5. Diptongo laburketak

Eremu honetako euskaraz bada fonetikari dagokion ezaugarri bat, hauxe da: diptongo laburketarena. Kasu hauetan *-i-* bokalen artean aurkitzen denean, aldentzeko joera testigatzen da. Alegia, hemengo hizkeran horrela ebakitzen da:

beiak > beak
 jaiero > jaero
 anaia > anaea
 naie > nae
 aiek > aek

Gaztelaniaz, bada, antzeko bilakabidea gertatzen da; ez dakigu aipaturiko fenomeno hau euskararen eraginari zor zaion edo ez. Baina, bilakabide antzekoa gertatzen dela argi dago. Zeren kontsonante ondoan dagoenean ez da *y-* desagertzen.

cayendo > caendo -aie- > -ae-
 trayendo > traendo -aie- > -ae-
 leyendo > leendo -eie- > -ee-
 sientate > sentate

Aldaera hauek arruntak dira Araban eta Errioxan: *partemos, partéis, salemos, saléis, estuvemos, subemos* (ik. Buesa 1982: 133). Nolanahi ere den, posible da eragin hau gazte-leraren goranzko diptongoak uxatzeko joeratik etortzea. Jakina denez, horrelako diptongorik ez dago euskaraz, eta zailtasunak aurkitzen ditu hiztunak horiek ahoskatzerakoan. Sakanan antzeko gauza gertatzen da: *perdendo* 'perdiendo', *tene* 'tiene', *sempre* 'siempre', *sete* 'siete', *hubera* 'hubiera' (ik. Bordonoba eta beste 1977: 70).

Hauetaz gain, aditzen sailan badugu lehen aldiko forma berezia, honetan *Ni* pertsona eta *Gu*-ren artekoak nahasten dira. Oroz Betelun ere testigatzen da hau (Alvar 1947: 465): *anduvemos, compremos, cosechemos, pusemos*.

Bukatzeko, aginteran *tu* izenordainari dagokion *-e* morfema, *i* bihurtzen da izenorde enklitiko bat eransterakoan: *súbilo*, 'súbelo', *súbite* 'súbete', *sacúдите* 'sacúdete'.

3.6. Beherunzko diptongoak

Bokalismo sailan honako hau suertatzen da azpimarragarria: diptongoa egiteko joera. Jakina denez, euskarazko diptongoak beherunzkoak dira, alegia, bokal itxia bigarren posizioan duena. Kau hauetan ere joera berbera testigatzen da, ez dago argi euskarazko fonetikaren eraginari zor zaion bilakabide hau; baina eragina izan dezakeela ziur gaude.

las raíces -> r[ái]ces
 la raiz -> r[ái]z
 me has oído -> [ói]do
 ahí tienes -> [ái] tienes
 qué agosto -> [áu]sto
 habeis -> h[ái]s

Nolanahi ere den, fenomeno hau hedatu da leku zabalagoetatik, hizkera arrunt eta herrikoian nahiko ohikoak baitira ebakera hauek. Esaterako, Nafarroa, Aragoi eta Errioxako hizketa arrunteko ezaugarri berezkoa da honako hau: *piazo* 'pedazo', *rial* 'real', *pior* 'peón'. Hauetako forma batzuk Ameriketaraino hedatu dira (ik. Alvar et al. 1977: 35). Garcia de Diegok honelaxe dio:

“La diptongación implica el cambio del acento a la más abierta: máestro, cáido, ráiz, bául. La fonética sintáctica la pronunciación rápida y la lengua vulgar forman muchos diptongos: miandicho, tiaseguro”. (Alvar et al. 1977:34)

Azkenik, hemen eta eremu handi batean arrunta da *haber* aditzaren ebakera, diptongo berantiarra mantenduz: hai “yo he”, aditz perifrastikoetan erabilia: *hai visto, hai de bajar, hais de venir*. “

3.7. Esdrujularik ez

Azentuarekin jarraiki, herri hauetan beste bilakabide fonetiko bat entzuten da, hauxe da: kontsonante proparoxitonoak aldentzeko joera. Euskaraz, jakina denez, azentuaketa proparoxitonoa oso urria da. Honen eragina izan daiteke Errobarren erabiltzen diren izen berezi batzuk:

Alvaro (izen berezia)	-> Alváro
sábado	-> sabádo ²⁸
lñigo	-> lñígo

28. Ez da oso argia ebakera hau, baina argi dago joera .

Aurreko kasuetan bezala, paroxitonoak bihurtzeko joera hau hedatzen da Nafarroako hegoaldean, eta Buesak dioenez (1977: 15) aragoiera eta gaskoierarekin bat dator. Honako adibideak ematen ditu: *cañámo, pajáro, cántaro ~ cantáro, aguila, higádo* (Erron, Añorben, Allon eta Iruñean), eta honen aldaera den *higáu* ere aurkitu zuen Alkotzen, Egozkuen eta Erron.

Buesaren ustez, ezaugarri prosodikoa hau Aragoiko hizkeren eragina dateke; gainera 18. orrialdean marraztutako mapan, argi ikusten da gure eremuan kasu bakan batzuetan gertatzen dela, aldiz Nafarroako hego-ekialdean askoz arruntagoa dela.

Hauetaz gain, lehen aldiko pluraleko *guk* izenordainari dagozkion lehen-aldiko aditz-formetan ebakera berezi bat testigatzen da. Forma hauek aspaldian testigatu ziren, Berceok²⁹ erabiltzen zituen, eta gaurregun hedatzen dira Errioxan, Bureban eta baita Nafarroako hegoalderago ere (Eslava, Lerga).

comíamos -> co.mi.á.mos
 aprendíamos -> a.pren.di.á.mos
 poníamos -> po.ni.á.mos
 íbamos -> ibámos
 andábamos -> andabámos
 comíamos -> comiámos

3.8. Azentua azken aurreko silaban

Hizkera honetan, euskaraz azentua azken aurreko silaban jartzeko joera dago. Gaurko gaztelaniaz ere horrelaxe azentuatzen da. Alegia, izen konposatuetan, azentua, azken aurreko silaban erortzen da. Adib.: *Amabérjine Orreagákoa*. Hona nola ebakitzen diren izen hauek:

Pedroférmin
 Jaunférmin
 káfe (Ya tomaréis un káfe)³⁰

4. LOKUZIOAK

Azken ataltxo honetan gaztelaniaz mintzatzean erabiltzen diren lokuzioei lotu egingo diegu. Hauetako batzuk euskaraz erabiltzen dira zuzenki, beste batzuk, ordea, euskarazko lokuzioen itzulpen hutsak dira. Honetarako Izagirreraren hitzak ezin aproposagoak iruditzen zaizkigu.

Herri hizkeraren ezaugarriarik nabarmenetako da lokuzioa, eta aho hizkeraren sorke-ta estilistikorik garrantzitsuena (errefrauaren erretorika eta moralkeria gabe). Hizkuntzak ito eginen lirateke bortxaren bortxaz ederragotzen dituen herri anonimoak erabiliko ez balitu (Izagirre 1981: VII).

Hauxe da gertatzen dena hizkera bizi eta herri xeheak erabiltzen duen horretan, espre-sibitatea markatzeko bidea hau dela; arau eta legeen ardura handirik gabe, hitzaz baliatzea; ajolarik gabe gramatikan "huts egiteagatik".

29. Ik. Lapesak dakarren Berceo-ren adibidea (1988: 481). "En Egipto andavámos como grandes señores"

30. Forma hau esaten da Mezkiitzen hemengo baten ahoskera errepikatuz, iseka eginez.

Esprebitatea bilatzeko ahalegin honetan, euskarak berezko dituen errekurtsioak erabiltzen ditu: gaztelaniara itzuliak batzuk, eta beste batzuk, ordea, euskara hutsean ematen ditu. Hona hemen, bada, lokuzio arruntenak:

Maribisteko 'Limpieza superficial, sólo para la vista'

— *¿Ya has limpiado la casa? Si, he hecho un maribisteko.*

¡¡Ara, ara!! 'Expresión de asombro'

— *¡Ara, ara, mira qué de gente hay ahí!*

Euskarazko esapide hau askotan entzuten zen nahiz orain erdi desagertua egon, gazteleraz *¡¡mira, mira!!*-ren ordekoa dugu.

¡¡Vete y busca!!

Euskarazko *joan eta bila*-ren kidekoa (ik. Izagirre 1981: 687), gaztelaniaz, *¡¡vaya usted a saber!!*

¡¡Y yo creer!!

— *Sabes que Pedro se ha casado? ¡¡Sí, y yo creer!!*

Euskaraz *nik sinetsi hori!!* eta gazteleraz, "y yo que me lo creo"

¡¡Ahí está!!

— *Y claro, como el marido estaba en paro, no pudieron comprar el piso, ¡ahí está!*

Euskaraz, *hor zegok ba!* eta erdaraz, *ahí está el quid.*

¡¡Ai eneee!! '¡¡Ay de mí!'

Azken bokala luzatuz harridura edota sinesteko zailtasuna adierazten da.

— *¡Ai eneee cuánta gente ha venido!*

— *Jesus Maria ta José!*

¡¡Hor konpon Mari Anton!! *¡¡Ahí te las arregles!!*

— *Mira le dejé todo encima de la mesa y ¡¡hor konpon!!*

Cada vez y más 'Cada vez más'

Euskarazko *gero eta gehiago*-ren kidekoa dateke, alegia, -y- konjuntzioak euskarazkoaren lotura hitza da.

No está de su mano hacer eso 'No tiene posibilidad, no depende de él'

Euskarazko esapidearen kalkoa dugu hau, *bere eskutik egon* egituraren parekoa, ezintasuna adierazten du (ik. Izagirre 1981: 661).

Calentarle los cascos

Gaztelaniazko *¿'le comió el tarro?'* Izagirik (1981: 671) 'burua berotu'-ren kidekoa dela dio.

Hablar con su cabeza ‘Bere buruarekin hitz egin’

Euskararen kalko garbia da honako hau. Perpaus baten barnean bi izen sintagma erreferentziakideak direnean (hau da, izen bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean) bigarren izen sintagmak izenordain bihurkariaren forma hartzen du. Ikusten denez, egitura hauek osatzeko euskaraz *burua* izena izenlagun bihurkari bati eransten diogu.

- *Yo iba por la calle hablando con mi cabeza.*
- *Batek besteari esan zion: ¿Que vas, hablando con tu cabeza?*
- *Bigarrenak erantzun zion: No con la boca.*
- *Yo muchas veces suelo andar contra mi cabeza*

Iñalakin

- *Aqui estamos, iñalakin* (< egin ahalak egin)

Gazteleraz ‘haciendo todo lo posible’

Arriba abajo ‘Poco más o menos’

